



IKASTOLA EREDUA

**HEZKUNTZA
ERALDATZEN**



ikastolenelkartea

ATE IREKIAK
URTARRILAK 26

17:15etatik
19:00etara

Ezin bazara bertaratu edota informazio gehiago nahi izanez gero:

Deitu: **943 15 12 46ra**

Idatzi: **ikasberri@azpeitikoikastola.net**

Sartu: **www.azpeitikoikastola.eus**

azpeitiko
ikastola

ikasberri koop.e. 

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@uztarria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 190.a (2017ko urtarria)
Urtea. XVIII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 /
 uztarrria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Maialen Etxaniz
Webgunea.
www.uztarria.eus

Uztarrria herri aldizkariaren
laguntzaileak (erakunde
 publikoak)



Gipuzkoako
 Foru Aldundia



Uztarriak
 Bai Euskarari



azpeitia
 udala



EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako
 Hezkuntza, Hizkuntza
 Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako
 Sailburuordetzak) diruz
 lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen
 aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

||| 2017KO URTARRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||



04

iritzia

Inkesta. Zer kultur
 ekitaldi nahiko zenuke
 aurten ikustea? **13**

mamia

Juan Migel Arregi.

Loiolako erretore
 nagusi azpeitiarrari
 elkarrizketa **04**
KLik! 2016ak utzi
 duena argazkitan **16**
Sansebastianak.

Iraurgi Saskibaloiak
 parte hartuko du lehen
 aldiz hazten segitzen
 duen helduen
 danborradan **24**

jakiteko

Atzera begira.

Otamendi erloju
 dendak ehun urte bete
 ditu **34**



24



34

Ba aL dakizu 20. korrikaren kantua zirko
 munduan girotuta dagoela eta azpeitiar
 bat ageri dela bideokLipean? **Uztarrria**

Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

**Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak
 ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak
 orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia
 txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide
gara Uztarrria Komunikazio
 Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro
dira urtean.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

JUAN MIGEL ARREGI

Loiolako erretore nagusia

“che eta Fidel ziren gure jainkoak gaztetan”

Kuban jesuiten buru zortzi urte pasatu ostean, Loiolako Inazioren etxera itzuli eta erretore nagusi izendatu dute Juan Migel Arregi. 📧📞 Ainitze Agirrezabala

Loiolako erretore karguaz, esku artean dituen proiektuez, Kuban jesuiten buru igarotako egonaldian topo egin zuen herri behartsuaz eta Loiolako elkarrizketez luze hitz egin du Arregik Uztarriarekin.

Loiolako erretore nagusi izendatu zintuzten San Inazio egunean. Zer moduz kargu berrian?

Duela hamabost urte ere egon nintzen erretore hemen, eta oso ezaguna dut hemengo lana. Baina, beno, hamabost urtean gauzak aldatu egiten dira, eta Kubatik etorrita berritu egin behar neure burua eta bihotza hemen.

Zer da zure egitekoa erretore nagusi bezala?

Loiolak hainbat arlo ditu: batetik

santutegia eta basilika daude, eta urtean ia 100.000 pertsona etortzen dira San Inazioren jaiotetxea bisitatzera. Bestale, gogartetxea dago, eta urtean 6.000 lagun inguru etortzen dira gogojardunak egitera. Horiez gain, gazteentzako aterpetxea, Arrupe hotela, Jesuiten gaixotegia eta liburutegia ditugu. Horiek gestionatzeaz arduratzen naiz. Baina orain ari gara hausnartzen Loiola Zentroa edo halako zerbait sortzea, gizarteko erronka desberdinei –etorkinak, bizikidetzak, espe-teratuak...– aurre egiteko.

Loiolako santutegian zenbat jesuita bizi zarete? Batez beste zer adin duzue?

50 gara, eta haietatik 25 gaixotegian daude. Batez besteko adina

|||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1955eko urriak 22.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizi tokia.** Loiola. |||**Lanbidea.** Loiolako erretore nagusia.

70 urteren bueltan dago.

2003tik 2008ra Loiolako probintziala izan zinen. Zer alde dago kargu hartatik honetara?

Loiolako probintzialaren ardura da Euskal Herrian ditugun erakunde guztien jarduna antolatzea eta bultzatzea. Hor daude Deustuko unibertsitatea, bost ikastetxe, pastoraltza egiteko etxeak... Guztira, 2.000 langile genituen erakunde horietan, eta haien arduraduna nintzen. Eta Loiolako erretorea izatea da guzti horren parte txiki bat. Mapa horretan Loiola zati txiki bat da, baina Loio-

la bera mundu konplexua da. Izugarria da Loiolako Inaziok zer proiektio duen mundu osoan.

Kuban zortzi urtez bizi izan zinen. Nola iritsi zinen hara?

Bizi guztian ardurako karguetan egon naiz, eta probintzial izateari utzi nionean, eskatu nuen beste lan erronka batzuk probatzeko asmoz gutxienez urtebeterako kanpora joan nahi nuela, behartsuen mundura. Kuban behar handia zegoela esan zidaten, eta oso pozik joan nintzen. Baina hara iritsi eta hiru hilabetera Kubako jesuiten burua Brasilera eraman zuten eta haren ordezkotz izendatu ninduten. Kubako jesuiten ardura guztia hartu behar izan nuen, nik herrialde hura ez nuen ezagutzen, eta, gainera, Kuban



bizi genuen egoera zail hartan, ba erronka handia izan zen.

Kubako jesuiten buru izen-datu zintuzten, 2012an. Kubako egoera politikoa bertatik bertara ezagutzeko parada izan zenuen. Zer topatu zenuen han?

Nik Kuba ez nuen ezagutzen bature. Niretzat Kuba zen gaztetan idealizatuta nuen leku bat. Gaztetan Che [Guevara] eta Fidel [Castro] ziren gure jainkoak. Noski, kolpea izan zen ailegatu eta jendea hain behartsu ikustea. Ekonomikoki jendea desesperatuta zegoen, bizi ezinik. Orduan, egin genuen lehen gauza izan zen haiei laguntzeko antolatzea. Baina gobernuari ez zitzaion hori asko gustatzen, ekonomikoki gauzak ez zeudela ondo onartzea bezala baitzen. Bizi egin behar dute, eta nahiz eta kristauak ez izan, elizara sartzen ziren laguntza eske. Azken batean, laguntza posible bakarra gu ginen, eliza. Jatekoa, arropa eta medikamentuak ematen genizkien. Ni heldu nintzanean jesuitak parroikiko lana egitera mugatzen ziren: mezak eta katekesia eman. Kuban badira eskolaz kanpo ikasgaien errepositorako eskolak, baina familia batzuk ezin zituzten ordaindu, eta gu hasi ginen antolatzen doan eskola horiek. Bat-batean, 120 ume genituen. Era berean, jabetu ginen familiak apurtuta zeudela eta amentzat formakuntza saioak eta autolaguntza taldeak antolatu genituen, eta baloreak lantzeko dantza, mu-

sika eta marrazketa tailerrak. Zentro Loiola izenean sei gune antolatu genituen Kuban, eta 2.000 haur izatera heldu ginen. Hasieran gobernuak mesfidantzaz hartu zuen gure lana; izan ere, beti egin du lan gobernuak heziketan, eta gu hor sartzea ba...

Baina gero ikusi zuten ez genuela inolako intentzio okerrrik; alde-rantziz, laguntza ematen genuela, eta, beno, onartzen joan ziren.

Azken mende erdian Kubako estatua eta eliza katolikoa-ren arteko harremanak ez ziren inoiz zu han zeunden bezain onak izan. Horrek Kubako oposizioaren kritika gogorrek ekarri zizkion elizari.

Bai, normala da. Komunismoa ofizialki jarri zutenetik erlijioa debekatuta zegoen, jazarria eta kartzelaratua. Ezin zuten elizara sartu, eta sartuz gero gertatuko zitzaienaren beldur izugarria zuten ni ailegatu nintzanean ere. Izan ere, ondorio bezala lana galdu zeza keten, edo seme-alabek ezingo zituzten hainbat karrera egin. Orain gobernuak dio erlijio askatasuna dagoela, eta egia esan, asko hobetu eta normalizatu dira gauzak, baina egunerokoan errealitate ez da hain askatua. Pixkanaka doaz gauzak aldatzen. Eliza errespetatzen da liturgia eliza barruan egiten badu eta hausnarke-ta politikoetan sartzen ez bada. Azken urteetan, elizak gobernuarekin elkarrizketak izan ditu, eta fruitu batzuk eman ditu. Adibidez, duela hiru urtera arte aipatutako zentro horiek izatea ezinezkoa zen. Egia da batzuek ez dutela harreman hori ondo ikusten eta eliza eta gobernuaren artean txoke fuertea izatea nahi luketela. Hor, batez ere, Miami-tik datorren arnasa dago. Handik irten zutenek min eta amorru handia dute. Azken batean, elkarren artean konfiantza lortu behar da, eta gobernuari ikusarazi elizaren lana ez dela kontraerreboluzioa egitea; jendeari laguntzea baizik. Baina elizak ere autokritika egin behar

“santutegia, gogartetxea eta basilika kudeatzeaz arduratzen naiz”

“Loiola zentroa sortu nahi duqu, gizarteko erronkei aurre egiteko”

du, duela 60 urte izandako jokae-rari buruz. Orain dela 60 urte eliza aberatsekin zegoen, baina orain behartsuei elizak laguntzen die.

Kubako iraultzaren ikur izan den Fidel Castro azaroren 25ean hil zen. Haren heriotzak zertan aldatuko du Kubaren egoera?

Momentuz ezertan ere ez, kontrol izugarria dago eta. Otsailaren 18a izango da giltzarria, orduan utziko baitu Raulek presidente kargua. Orain bi mugimenduren arteko borroka dago. Alde batek, gobernuak dio Fidelen ideologiari jarraitu behar zaiola, hauteskondeetan alderdi bakarrarekin jarraituko dutela, eta komunista bat jarriko dela buru. Oposizioak, berriz, demokrazia aldarrikatzen du: 'kubatar bat, boto bat'. Fidel izan da sistemaren autore morala eta intelektuala, eta Fidel hilda non oinarritzen da orain sistema? Autoritate moral eta ideologiko hori desagertu egin da. Orain komunismo hutsean ezin dute joan, beraien desastre handiena ekonomia izan baita. Txinarekin-eta hitz egin dutenean merkatu ekonomian sartzea eskatu diote, eta hori nahiz eta Fidelen ideologiaren kontra joatea izan, ikusten dute momentu honetan ez dutela beste biderik. Txina eta Vietnam izan dira ekonomikoki aurrera egin duten bi sistema komunista, baina horiek ere ekonomia

merkatua joan dira. Hor ikusi behar da momentu honetan nondik joko duten. Baina orain behetik zegoen mugimendu hori, oposizioarena eta gonernuaren postura indartu egingo dira, nabarmenago azalduko dira. Gobernuan zeudenek beti esaten zidaten Karibeko sistema komunista zirela, eta, egia da, Kubako komunistak bertako ideosinkrasia du.

AEBekin ere egon da urteetan egon ez den harreman irekiera edo estutzea. Orain Etxe Zurira iritsi berri den Trumpek harreman hori zapuztu dezakeela uste duzu?

Zapuztu ezingo du, gainera, beraintzat ez da ona izango, baina asko baldintzatuko du. Nik uste dut Obama oso eskuzabala izan dela, pentsatuaz dinamismo, laguntze, irekitze, aukerak emate horrek ekarriko duela pertsonen nahi dugun ontasuna, askatasuna, parte hartzea eta nortasuna. Obamak garbi jolastu zuen, ito gabe, arnasa emanez. Berak pertsonalki eman zuen mezua oso ona izan zen, eta kontsolazio handia sortu zuen herrian haren bisitak. Obamak esan zuen Kubak berak egin behar zuela bere bidea, eta beraiek lagunduko zutela bide horretan. Ez zedela oztotatzeko, ezer inposatzeko. Noski, Trumpek ez du hori horrela egingo. Oposizioak zer dio?

Zerbait ematekotan zerbait eskatu behar zaio. Eta zer eskatu behar zaio? Demokrazia. Otsailaren 18rako fuere bultzatuko dute demokrazia egon dadin; hauteskunde askatuak egon daitezten.

Habanen jesuitek ireki duten Loiola zentroan harreman egin zenion Frantzisko aita santuari. Bisita berezia izan zen hura. Nola bizi izan zenuen zuzk?

Bisita ofizialean ez zegoen sartu-

“Obamak garbi jolastu zuen, ito gabe, arnasa emanez”

“Errespetu handiz egin zen prozesua; ariketa polita izan zen”

ta momentu hura. Handik pasatu behar zuen eta bagenekin jaitsi zitekeela. Habanako etxean elkartu ginen jesuitak, eta gure ate aurretik pasatzean sartu zen gugana. Bisita motxa izan zen, ordu laurdenekoa, baina oso familiarra. Oso une polita izan zen. Anaiak bezala agurtu ginen, maitasuna erakutsi eta aurrera egiteko animatu ginen elkar.

Euskal alderdien arteko bi-tartekari lana egin zenuen Loiolako elkarriketetan. Nolako esperientzia izan zen?

Bilerak Loiolan egiteko lekua eskatu zuten, eta guk lekua prestatu genuen eta laguntza eskaini genuen baldintza guztiak bete eta prozesua errazteko. Polita izan zen ikustea beraiek zer prozesu egin zuten bai politikoki, baita beraien harremanetan ere. Nik uste dut Euskal Herriak hori izan behar harko lukeela eredu; nahiz eta oso desberdin pentsatu eta historia oso gogorra izan, elkarrekin lana eginez eta hitz eginez, posible dela kontsentsu batera iristea, borondatea badago. Hilabete batzuk izan ziren, eta beti beldurrez egon ginen kazetari pila noiz azalduko. Baina ez zen gertatu halakorik, eta ez dut uste inork ezer ez zekielako izan zenik. Prozesua errespetatu egin zen. Errespetu handiz egin zen prozesua; ariketa polita izan zen. Noski, Barajasko bonba hark goitik behera bota zuen lan guztia. Baina, tira, lan hori eginda dago, eta beraien eskertu behar diegu egin zuten esfortzua. Uste dut merezi izan zuela, eta oinarri onak ekarri zituela. Sinatu bezperan izan zen leherketa, eta horrek atzeratu zuen prozesu guztia. Boikota izan zen. Norbait ez zegoen ados Loiolako prozesu horrekin; hori ez da gertatzen kasualitatez.*

BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza zaharberritzea nahi duzu?



Abendaño poligonoa, 2
Tel. 943 133 015
Zarauz

Santiago auzoa, 12
Tel. 943 143 445
Zamala

San Juan, 16 (edif. AXRI)
Tel. 943 852 110
Azkoitia

Gozalaga Kalea, 10
Tel. 943 148 241
Zestoa

Erositako etxebizitza eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

Adriana eta Caren

Caren du izena eta hark zaintzen duen "abuelak" Adriana. Nicaraguatik etorri da Caren; Adriana Extremaduratik etorri zen. Eguna elkarrekin pasatzen dute eta elkarren beharra dute egunerokoari aurre egiteko.

Adrianak senarrarekin eta haurrekin egin zuen honainoko bidea, Badajozen utzi zituen familiakoak eta lagunak. Bizitza hobeari itzaropenez etorri ziren honaino traste gutxi batzuk aldean zituztela. Adrianaren seme-alabak hemen errotu dira eta bilobek euskara erabiltzen dute beren harremanetan.

Carenek bakarrik zeharkatu du Ozeano Atlantikoa, Nicaraguan utzi du 8 urteko alaba. Gogorra egiten zaio hainbeste maite duen alabarengandik hain urrun bizi beharra. Hilero ahal duen diru gehien bidaltzen dio eta, tarteka, opariak erosten dizkio hara bidaltzeko. Egungo hitz egiten dute elkarrekin, egungo teknologiek ematen dituzten erraztasunez baliatuz. Sarri, malkoak isurtzen dituzte pantailaren aurrean elkar agurtzerakoan.

Biek dute herrimina eta han utzitakoaren oroitzapenek zauriak irekitzen dizkiete. Ez zen erraza izango erabakia hartzea bietako inorentzat eta elkarbanatzen dituzten sentimendu asko dituzte. Aitzitik, ez dute antzirik Extremadura lehorreko herri txikiak eta Nicaraguako oihanekoak; ohitura oso ezberdinak dituzte; kolore ezberdinekoa dute azala; janaria prestatzeko moduak ez du batak bestearekin zerikusirik. Hizkuntza, alabaina, bera dute.

Adrianak gabonak seme-alaba eta bilobez inguratua igaro ditu. Jatordu luzeen osteko berriketaldietan beti kontatzen ditu bere gaztetako pasadizoak: Portugaleko mugatik oso gertu bizitzearen gora beherak eta han ere bazirela mugarekin jolasean aritzen ziren kontrabandistak. Esaten du duen arren nabari zaio maite duela bere herria.

Caren Nicaraguatik hona lanera etorritako lagun batzuekin bildu da. Gabonak dira,



|||||||Egoitz arruti|||||||

||| Ez dakit zenbateraino dakiten, gurpildun aulkiak baino gauza gehiagok batzen dituztela

hemen daude eta ongi pasatu nahi dute, baina ozeanoaren alde honetan ez dutenaz gehiago aritzen dira. Ordenagailua jarri dute mahaiaren ertzean eta etxekoekin banatu nahi dituzte une guztiak.

Urrutiko intxaurreak..

Garai batetik hona asko aldatu dira etorkinak, besteak beste: jatorria, bidaiatzeko modua, komunikatzekoa eta abar. Emakume bat ez zen inoiz ausartuko garai batean haurrak utzi eta beste herrialde batera bidaiatzera lan bila. Ziurrenik, gizonen atzetik bidaiatuko zuten emakume gehienek, gizonen babesean edo itzalean. Lehen eta orain, ordea, guregana etortzeko arrazoia berbera da: beren herrietan ez dutena topatu nahia. Ez dakit zenbateraino dakiten, gurpildun aulkiak baino gauza gehiagok batzen dituztela Adriana eta Caren, biak ala biak, aurreiritziz eta mespretxus beteriko begiradak jasan behar izan dituzte; ustezko gizarte moderno bateko azken mailan kokatu behar izan dute beren burua apurka gora egin nahian; herriminak lo ordu asko kendu dizkiete; ohartu dira amets-taketako lurralde honetan ere txakurrak oinetako gabe ibiltzen direla.*



Hori omen teoria

U

rte berriarekin batera, aro berri bat hasten da. Ez da zentzu handiko ezer, baina guztioi eragiten digu: urratu dugun urte zaharrari agur esan, eta ilusioz betetako zerbait berria jasotzeko prestatzen gara. Bukaera eta hasiera gertu ditugunean, bi fase izaten ditugu maiz.

Lehen fasea da atzera begirakoa. Batetik, falta zaizkigun horiek oroitzen ditugu. Aro berria hasiera goaz, eta berriro konturatzen gara ez direla bidelagun izango. Ikusten duzu pertsona hori, pertsona horiek, oraindik ez direla iragana. Pentsatzen hasi, eta zitzadak sumatzen dituzu bihotzean: "Ez nuen benetan gairitu, nigana dator bueltan". Eta horixe gertatuko zaizu egunorokoa, askotan; baina, batik bat, urte zaharra agurtu, eta berriari aurrez aurre begiratzen diozunean.

Bestetik, urtea erreparatzen hasten gara. 2016a, hauteskunde urtea: bigarrenkoz Urkullu eta Rajoy hautatu zirenekoa. 2016a, Azpeitian, kulturaren hainbat erreferente galdu genituen urtea; Kontxu Odriozola eta Iñaki Bergara 'Pio', kasu. Ezagutu zintudan urtea, baita ahaztu zintudan urte ere. Aurten ere, negarraren urtea, barreen urtea, festen urtea eta lanaren urtea.

Azpeitiarentzat, zalantzarik gabe, bizikidetzaren urtea. Elkarrekin bizitzeko urratsak egiten jarraitu genuen urtea. Ekainaren 5 hura, askok sekula ahaztuko ez duguna: independentziaren inguruko galdeketa. Han eta hemengo herritarrek iritzia eman genuen urtea, inoiz herri honetan izan den egitasmo anitzena hezurmamitu genuen ekain epela. Hautetsontziak errespetuz eta ilusioz bete genituen urtea. Eroak izan ginen urtea, arrazoiarekin erotu ginen urtea.

Bitartean, lanean ari ziren Azpeitiko Bizikidetzako Foroko lagunak. Hainbat motako sufrimendua jasan duten herritarrak plaza berean ari ziren biltzen, elkar entzuten, elkarri hitz egiten eta ondokoaren azalean jartzen, oilo-ipurdi eta guzti. Korapiloak askatzen ari ziren, eta



eneritz albizu lizaso

Eskatu zeure buruari; izan ere, ezer gabe gelditzen zarenean zure arnasa soilik izango duzu

sekulako ekarpena egin diote gure herri honi, borondatek eta aurrera egiteko gogotik.

Bigarren fasea: berria usaintzen

Atzera begiratzearekin batera, urte berriarengan jarri ditugu desio eta helburuak. Horixe bigarren fasea. 2017ari eskatu diogu osasuna, maitasuna, lana, lagunartea... Eta xanpainez betetako kopekin egin digu txin-txin. Eta hala xe, aurtengoan ere, biktima pasiboen papera hartuko dugu, zer ekarriko digutenaren zain... Eta horrelaxe joan zaizkigu urteak, ezta?

Urte berria norbaitek asmatu zuen zerbait da, ez da jainkoren batek akatsak konpontzeko eman digun aukera. Ez dakit albiste ona edo txarra den, baina gu soilik izango gara geure desioak beteko ditugunak. Ez egon osasunaren tximistak sendatu zain, eta zaindu zure burua; ez egon inork zu zoratzear maitatu zain, eta maite beldurrik gabe; zaindu ingurukoak eta saiatu lana gustura eta ondo egiten. Ez eskatu urte berriari, eskatu zeure buruari; izan ere, ezer-ezer gabe gelditzen zarenean, zeure arnasa soilik izango duzu. Edo hori omen teoria.✱





IRAURGI

ikastetxea

Ilusioz etorkizuna eraikitzen!

Ate irekiak: urtarrilaren 28an, goizeko 10:30ean

MATRIKULAZIO EPEA


urtarrilaren 30etik otsailaren 10era arte

**zatoz gu
ezagutzera**

www.iraurgi.eus

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

‘Azpeitiarrez natul’, abian


Belaunaldien arteko transmisioa bultzatzeko asmoz, azpeitiarrez erabili ohi diren hitzak eta esamoldeak bildu nahi ditu Natul Taldeak. Ondarea herri mailan osatutakoa izatea nahi dute.  Ainitze Agirrezabala

Azpeitiarrez hitz egiterakoan erabili ohi diren hitzak eta esamoldeak biltzeko asmoz, ‘Azpeitiarrez natul’ egitasmoa jarri du martxan Azpeitiko Natul Euskara Taldeak. Natul taldeko kideen esanetan, herriko hizkera “aberatsa” da, eta ondare hori bildu nahi dute.

Errepertorioa herri mailan osatutakoa izatea nahi dute, ikastetxeen, herriko taldeen, kuadrillen eta norbanakoen parte hartzearekin. Ekarpenak jasotzeko www.azpeitiarreznatul.weebly.com webgunea sortu dute, eta herriko hainbat tabernetan postontziak jarriko dituzte. Proiektuaren helburua da, besteak beste, “belaunaldien arteko transmisioa bultzatzea; azpeitiar hizkeraren ezagutza zabaltzea;

ezagutu bai, baina egunerokoan erabiltzen ez diren hitzak gogoraraztea eta erabiltzen hastea; gaztelania euskarari lekua jaten ari zaion garaiotan euskararen prestigio soziala altxatzen ahalegintzea, euskarari duen balioa emanez; eta sakonagoa izan daitekeen lan bati bidea irekitzea”.

Nolako hitz eta esamoldeak bildu nahi dituzten galdetuta, diote azpeitiarrez hitz egiterakoan erabili ohi direnak jaso nahi dituztela. “Haietako batzuk Azpeitian bakarrik erabiliko dira; beste batzuk, agian, gipuzkerako beste hainbat azpi-euskalkitan ere bai, baina Azpeitian ohikoak izatea da kontua”. Azpeitiarren eta batuaren artean egin nahi dute bereizketa, “ez azpeitiarra eta beste euskalkien artean”.*



HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

A

- Aho-iraudye berri batzarria
- Aukina adiskidetu
- Auzune hainbatzuek modoz
- Auzunye hainbatzuek berri

I

- Itaketa
- Itaketa
- Itaketa
- Itaketa

P

- Pateketa
- Pateketa
- Pateketa
- Pateketa

J


- Jipote
- Jipote

R

- Raka-raka zulo

K

- Kiketa / Kiketa
- Kiketa

Azpeitiar hizkeran ohikoak diren hitzak eta esamoldeak alfabetikoki ari dira jasotzen, webgunean.  Natul taldea



Ane Bastida.

 **ESANA DAGO**

“Oraingoz, talde guztietan [Lauroba, Iزارo eta Amor de Tokio] jarraituko dut. Lotuta ditugun kontzertuak bateragarriak dira”

ANE BASTIDA
Hesianeko baxu-jotzailea

“Pentsatzen duguna adierazi dugu, modu zuzenean”

ORHANTZA ALEGRIA
Egurra ta Kitto!-ko kidea

“Aizkorarako dohainik ez nuela ikusi nuen eta harriak jasotzen hasi nintzen. Plazan etxean baino hobeto ibiltzen naiz”

XABIER ARANBURU
harri-jasotzailea

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK*

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urtut.: 943 81 57 81

PROXIMITY CUSTOMER **AIZPURU**


Tel.: 943 81 23 59 aizpuru@aizpuru.net
Fax.: 943 81 22 81 www.aizpuru.net

Arretxe 17, 20730 AZPEITIA
Zure autoak behar duen edozertarako!

2017

Badator berria. Berria badator. Ez, berria ez dator. Berria etorri da. Estreinatuta ere egin dugu eta berria dena laister zena bihurtuko da. Bataiatu ere bataiatu dugu. 2017 izena jarri diogu. Urteen iraupenean ere murrizketak izan direla esango nuke. Agian niri bakarrik gertatuko zait baina lehengo urteak luzeagoak ziren. Orain hasi orduko finito, kitto, bapo, akabo. Aita Oteizak aginduta eskolan, *betarratan*, Julio Vernerren liburu bat irakurriz han agertzen ziren urruneko zenbakietara iritsi gara. Zientzia fikzioa zena eguneroko ogi egin zaigu. Azala bai, azala aldatu

da, baina munduaren muiak bere horretan jarraitzen du. Mundu bakar batean mundu asko, mundu adina buru eta aburu, denok egia bakarraren jabe, denok geure ziborrari begira, asko ala gutxi, daukagun hori, ugaria ala bakana galtzeko beldurrez. Eta maitatuak sentitzeko beharrean, kariño pittin bat da sendagairik indartsuenetakoa. Baina mundu honetako bizilagun gehientsuenok bankuen tankeran funtzionatzen dugu. Lehenbizi asko eskatu eta ondoren apur bat eman. Zuk niri asko, nik zuri aletxoren bat. Lehen, orain eta, tamalez, esango nuke, beti.



txetxu urbieta

Gurdiak, astoak eta idiak joan ziren; bidaia espazialak, mobilak eta tramankulu flipanteen jabe gara. Baina hezur eta haragi jarraitzen dugu, garun ale batzuz hornituta. Meltxor, Kaxpar, Baltaxar, zuek dena duzue, nire gutunean lerro bakar bat: beldurra uxatu eta dugunaz gozatzeko pilula; jarabea bada ere ameto. Hori gutxitxo iruditzen bazaizue, beste oparixko xume bat besterik ez. Bada hor zuen tokaio baten izenean jokutzen den lehia-keta. Ba, ea posible den, gure Realak finala jokatzea. Ez dut uste asko eskatzea denik. Izan zoriontsu. Urte berri on. Baita zuri ere.*

IKUSTEKO!



▲ SANAGUSTINEKO KOMUNETAKO KRISKETA FESTA.

Egia da ez direla egur trinkozko atea Sanagustin kulturguneko emakumeen komunetan daudenak, baina erabiltzaileek normaltasunez erabili izan balituzte, krisketak ez liratheke behin eta berriz hautsiko. Argazkian ikus daitekeenez, azkenean, atea ixteko morroiloa jarri behar izan dute. 📞 Ainitze Agirrezabala.*

ABENDUKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



julen eizmendi



Santotomasak

FESTA TRADIZIONALA. Asko gustatzen zaizkit santotomasak. Goizean goiz irten lagunekin, hamaiketako ederra egin, masailak gorritu ardo pixka batekin (edo askorekin) eta eguna festa giroan pasatu. Ez da plan txarra. Baina parrandaz gain, atsegin dut bakeroak eta gona motzak albo batera utzi eta gure arbasoenantzera 'baxerritarrez' janzteia egun batez bada ere. Ez da beti erraza izaten.



Olentzero

BAZEN GARAIA. Hainbat mendetan ikatza egin, jan eta edan besterik egiten ez zuen mutilzaharrak aurkitu omen du andregai. Inoiz ez da berandu maitasunarentzat. Gainera, gure ikazkin maiteak, orain arte erabat patriarkala zen Gabonetako oparien monopolioa zabaldu du bere emaztegaiari tokia eginez. Parekidetasunaren eredu dugu Olentzero.



Gabonetako argiak

ARGI SOILAK. Urtero bezala, piztu dituzte ia hilabetez herriko kaleak kolorez janzten dituzten argiak. Duela urte batzuk, argi horiek irudiak pizten zituzten; errege magoak, Gabonetako zuhaitza, Jesus umetan, eta abar. Baina pixkanaka irudi horiek argi soilez, edo mezurik gabeko

argiz ordezkaten joan dira. Ni neu ez naiz kristaua, baina ez dut ulertzen zergatik bere jatorrian erlijiosoa den festa bati bere iragana ezabatu behar zaion. Zer ospatuko dugu orduan, kontsumismoaren eta loteriaren festa?*

INKESTA

zer kultur ekitaldi nahiko zenuke aurten ikustea?

Ainitze Agirrezabala

INGE MURILLO

14 urte



"Egurra Ta Kitto! herriko musika taldearen zale amorratua naiz, eta haien kontzertua gustura ikusiko nuke zuzenean

Sanagustin kulturgunean.

Jorrazten duten musika estiloa, ska-rocka, izugarri gustatzen zait, eta haien kantu guztiak buruz dakizkit. Seguru nago aretoa leporaino beteko luketela".

EDURNE BASTIDA

14 urte



"Rise & Shine eta Shine Again bezalako antzerki musikalak ikustea

gustatuko litzaidake.

Arrakastasuak dira oso. Horrez gain, Donostiako Skakeitan taldearen kontzertua ere gustatuko litzaidake zuzenean ikustea, Sanagustinen".*



2017

Urteak aurrea doaz, proiektuak ere bai. Eta gizarte honetako herritar naizenez, urte hasierako ohiko balorazioa egitea tokatzen zait. Ondoren, desioen zerrenda egingo dut, eta, ziurrenik, iazko asmo berdinak idatziko ditut errenkadan. Baina, tira, goazen!

2016 aldaketan urtea izan da, eta 2017a ere horrelakoa izango denaren esperantza daukat. Beti mugimenduan, beti aurrera. Noski! Baina, mugimenduek, hasierez gain, amaierak ere izaten dituzte, eta, hain zuzen ere, halakoa da hau, amaiera bat.

2014ko maiatzean gurutzatu nituen lehen aldiz Uztarriako ateak. Ez nekien ez nor eta ez zer egongo zen barruan. Ene bada, orduan jakin izan banu barruan topatuko nuen guztia...!!! Karrera amaitzekotan nintzela ireki zizkidaten lehen aldiz Uztarriako ateak, eta ordutik izan naiz han. Hau, hori eta hura egin ditut; denetik. Milaka aukera eman dizkit hazte-



■■■■■■■■■■ EIDER BEREZIARTUA ■■■■■■■■■■

ko, baita milaka aukera arlo desberdin ukitzeko ere. Urteotan han izan naiz Uztarriako eta Hitzako lagunekin lanean. Eta orain, horri guztiari amaiera ematerakoan, haietaz oroitu nahi dut. Egutero-egutero ilusioz, pasioz eta maitasunez gure herriari "jaten" ematen dioten emakume/neska/neskato horietaz. Haiek gabe Azpeitiko herria ez litzatekeelako egun dena izango. Edozein gertaera dela-eta, han daudelako, edozein gai dela-eta, badakitelako, festak direla-eta, lanean ari direlako, asteburuak zer diren jai egiten dutenean bakarrik dakitelako, eta guk klik baten bitartez beraien lan guztia jaso deza-kegulako.

Gutxitan entzun ohi dituzte hitz politikak, badakit, baina, merezi, askotan merezi dituzte. Eta agurrek beti izaten dutenez halako sentsazio bereziren bat, eta orduan agertzen direnez sentipen horiek guztiak, tori zuentzat guztiontzat nire esker hitzak.*

galdetzen hasita, non bizi da azpeitiar gehiago, bariantea igaro aurreko tartean edota igaro ondorengoan? Uztarria

Historiako libururuak

Gaur balitz bezala gogoratzen dut Montse eza-gutu nuen eguna. Hiru hilabete inguru neramatzan Azpeitian, eta oso bakarrik sentitzen nintzen. Euskararen arnaguneetako batean bizitzeko nire ametsa bete nuen, eta kalera ateratzen nintzenero hizkuntza eder horren doinua entzuteak zoriontsu egiten ninduen. Jendeak esaten zituen hitzetatik zenbat ulertzeko gai ote nintzen kontatzera jolasten nuen, baina neure artean pentsatzen nuen, "zertarako balio dit, ez badaukat norekin hitz egin". Arratsalde batean poteo orduan neure buruari esan nion, "ondo da Lnette, aterako zara eta ez zara etxera itzuliko norbaitekin hitz egin arte". Plazako taberna batean eseri nintzen eta ordubete baino gehiagoz itxaron nuen, eta halako batean han agertu zen emakume berritsu eta alai hura. Bakarrik zegoen bera ere, eta hitz egiten hasi zitzaidan. Alde egitera zihoanean esan zidan, "ez zatoz?". Hau poza, hitz egin ez ezik, berarekin joatera ere gonbi-





■■■■■■■■■■ LINETTE MONTALVO ■■■■■■■■■■

datu ninduen. Hor jai zen nire bizitza asko aberastu duen adiskidetasuna.

Montse emakume heldua da, eta bere adineko azpeitiar asko bezala, urteek emandako jakinduria eta historiari beteta dago. Sarri gertatzen da, ordea, ez dela inor haiek kontatzeko dutena entzuteko. Herrialde honen historiako etapa asko euren azalean bizi izan dituzten belaunaldiak dira, eta historiako liburuek ematen dituzten datuetatik harago, pertsona horiek sentitu zutena azaltzen dizute; baita pozak ere. Nik Montserengandik eta haren belaunaldiko beste batzuegandik ikasi dut gaur egun nire begiek ikusten duten Azpeitiaz, baina baita lehengo Azpeitiaz ere. Gure inguruan dabilza historiako liburu horiek, zabal-zabalik, nork irakurriko, nork entzungo zain; bi aldeek, eurek eta guk, asko dugu irabazteko. Gu ere izango gara noizbait liburu orain ernatzen ari diren belaunaldi horientzat, eta zer ilusio egingo digun haiek gu irakurri nahi izateak!*

HAU HOLAXEENK



Zibaren jirak eta birak



xabi borda

Hurritz, liluratuta zauzka zibak. Sokari eragin eta biraka ipintzen dut madari formako mundua zure aurrean. Lehendabizi txalo egiten duzu jesarrita, hor zoaz gero lau hankan xibota tupustean hartzera. Armagedon txiki bat zara.

Hala dabil nonbait zapaltzen dugun mundu hau ere, Hurritz, erremota baten pare irabiatze atergabean. Bere orbitaren gurpila osatzean, lasterketa bateko helmugako zinta imaginarioa jartzen dugu, eta urratzen dugun aldiko elkarrri Urte Berri On opa eta hurrengo bueltari ekiten diogu.

Itzuli bakoitzean ilaran etortzen zaizkigu aldarriak: urtarrilean Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzeko manifestazioa Bilbon, Herri Urrats udaberrian, Elkartasun Eguna, Gure Esku Dago-ren ekaineko ekimena, Marea Arroxa, Kilometroak... Urtea joan eta urtea etorri, jira eta bira nekagaitzean dabil gure ziba eguzkiaren bueltan.

Badira hala ere zibak hankaz gora bota ditzaaketen harri txintxorrek: historiaren zoruaren kontra talka egiten duten kometak. Begira, laster da Lituaniar Sausio 13a. Hunkituta gogoratu ohi dute gure lagun Daivaren, Juste-

ren, levaren gurasoek zero gradu azpiko gau hura: 1991ko urtarrilaren 13an sobietarrek tankeak atera zituzten herritarren kontra lituaniarrek independentziarako bidea hartu zutelako. Dena ala ezer ez. Kale edo bale. Baltiko zibari esku zartada bat.

Hurritz, jolasean jarraituko dugu atsegin bazu. Zoruan bueltaka jarriko dizut mundu txikia behin eta berriz, eta zuk segi iraultza simulakroak egiten zeure eskutxoekin. Horrela gure etxeko egongelan ura ez da beti bere bidean joango. Eta, agian, noizbait iraultzaren batek ustekabean harrapatuko du gure bizitza.✳

Erotikan Plax!



haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitz-eko kideak)

Antzerkia bizibide eta pasio duen Alaitz Olaizolari egokitu zaio hila honetan 'Erotikan PLax!' ataleko sexu-galderei erantzutea. **Emakumea, antzerkilaria, gaztea, ama, alaba, izeba, bikotekidea, idazlea, haur hezkuntzan diplomatua... Alaitz ezagutzeko zerbait gehituko zenuke?**

Aaaa! Hik dena jakin nahi! **Antzerkia pasio handia duzula ezin uka dezakegu; idazlea, zuzendaria, antzerkilaria. Zer duzu gustukoa?**

Zuzendaria baino zirikatzailea esango nuke. Hala ere, bat aukeratzekotan idaztearekin geratzen naiz. Niretzako da momentu hori, bakarkako lana, nire barrura begirakoa delako.

Antzerkian, sexualitatearekin lotutako eszenarik, anekdotarik?

Bai, sarritan, emakume naizen heinean, oso presente daukat. Horrelako gaiak jorratzen ditugunean askotan atentzioa eman izan dit publikoaren erreakzioak.

ALAITZ OLAIZOLA

Adina. 42 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Landeta.
Lanbidea. Antzerkilaria.



Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:
Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzorduak, urtarrilean: hilaren 18an
(16:00-19:00) eta 28an (10:00-13:00).

Zer nahiago du Alaitzek, berak ligatzea edo norbaitek bera ligatzea?

Nik biak, sedukzio jolasa oso polita da bi aldetatik.

Bizitza errealean inoiz orgasmo bat izan duzula antzeztu duzu?

Utzi pentsatzen... umm, ez dut uste.

Sexualki asketzat duzu zure

burua?

Bai, zergatik ez? Askea naiz norekin eta nola egon nahi dudana erabakitzeko.

Zure gorputzeko zer atal duzu gustuko?

Ezkerreko eskua.

Zer eskaintzen dizu plazerak zuri?

Batez ere plazera, kar, kar, kar! Zer galdera dun hori!

Janari goxo bat?

Pasta peperoncino e gamberi erara.

Usain bat?

Patxulia.

Abesti sentsual bat?

Bibolina duen edozein.

Pelikula bat?

'Cuando cae la noche'.

Txoko erotiko bat?

Gogo dagoenean edozein.✳



▲ URTARRILA.

Batetik, Maialen Etxanizek idatzita, Jose Luis Frantzesena *Schubert*-i eskainitako biografia aurkeztu zuen Uztarrria Komunikazio Taldeak, urtarrilaren 16an. Bestalde, Laxaro Azkunereren *Oroimen bizia*. *Azpeitiko auzoak XX. mendean* liburua aurkeztu zuten, hilaren 8an.



▲ MARTXOA.

Memoria berreskuratzea xede, Gerra urteetan jazotako gertaerak biltzen duen liburua, Aranzadi Zientzia Elkartek eta Gernikako Udalak aurkeztu zuten, martxoaren 19an, Aranzadi Zientzia Elkartek eta Gernikako Udalak aurkeztu zituzten. Liburuak bi liburuki ditu: *Azpeitia 1936-1945: Memoria berreskuratzea* eta *Azpeitia 1936-1945: Memoria berreskuratzea*.

2016a argazkitan

Iaz hainbat gertakari izan ziren herrian. Horietako batzuk ekarri ditu Uztarriak hona, joan den urtearen errepassoa egiteko. 📌📷 Ainitze Agirrezabala



a Zibilean eta frankismoaren lehen dituen liburua aurkeztu zuten hilaren 16an, Azpeitiko Udalak, elkarlanean.
1966-1945: Giza eskubideen zapalketa eta memoriaren izenak.

► **OTSAILA.**

Bi herritarren heriotzek belztu zuten otsaila. Kontxu Odriozola aktore ezaguna eta ikastolako lehenengo andereñoetakoa otsailaren 5ean hil zen. Hilaren 22an, berriz, Nicolas Oteiza *Kaito* hil zen, urteetan zehar, kamera eskuetan, kulturaren eta transmisioaren alde herrian gertatzen zirenak biltzen lanean aritu zena.



▲ **APIRILA.**

Matxinbentako Igartzolabekoa baserria erre zen apirilaren 7an, goizaldean. Kalte materialak izan baziren ere, baserriko bizilagunak, ama- semeak, bertan ziren sutea gertatu zenean, baina ez zen inor zauritu. Gerora, erretako baserriaren hondakinak kendu zituzten, eta orain ez da ezer geratzen baserria zen lekuan.





▲ MAIATZA.

2013 eta 2015 artean *Aho Bizarrik Gabe* egin ondoren, elkarrizketa ziklo berri bat jarri zuten abian, maiatzaren 11n: *Sanagustineko elkarrizketak*. Erlok, Sanagustinek, Uztarriak eta Kostako Hitza-k elkarlanean egiten duten egitasmo berri honetan azpeitiar ezagunak dira elkarrizketatuak. Jabier Larrañaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza diputatua izan zen lehenengo gonbidatua.

▼ EKAINA.

Ekainaren 13an egin zuten udalbatza berria osatzeko osoko bilkura, eta Eneko Etxeberria EH Bilduren zerrendaburua izendatu zuten Azpeitiko alkate beste lau urterako. Azp



▼ UZTAILA.

Azpeitiak Gipuzkoako Herriartekoaren txapela jantzi zuen, bosgarren aldiz, uztailaren 3an.



▲ ABUZTUA.

Done Jakueko geldialdia, asto eta guzti, udal liburutegian egin zuten belgikar honek.



▲ IRAILA.

Xabier Madina abeslari ohia hil zen, irailaren 7an. Musika izan zuen afizio eta inoiz ofizio nagusi urte askoan. Horrela egin zen ezagun, urte luzez abeslaria izan baitzen Madina.



▲ URRIA.

Miren Gorrotxategik 33 ezki aurkeztu zuen urriaren 26an. 2015ean Agustín Zubikarai beka irabazi ostean idatzi du bere lehen eleberria.



▲ AZAROA.

28 urte eta gero, azaroaren 30ean itxi zituen atea Lapatxek. Ordutik, mankomunitateko udalerrietako zaborrak Elgoibarko transferentzia gunera ari dira eramaten, GHK-k handik Merueloko (Kantabria, Espainia) zabortegira bideratu ditzan.

▼ ABENDUA.

Udal Musika Bandaren 150. urteurreneko ospakizunei amaiera emateko ekitaldi nagusia ospatu zuten abenduaren 23an, Soreasun. 130 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte Bandarekin batera ekitaldi-kontzertu-ikuskitun-emanaldi-show berezian, eta jendez lepo bete zen antzokia.



Korapiloa askatzen

Lana eta ordu asko izan dira Bizikidetza Foroko kideek ondorioztatutako hamabi puntuak adosteko giltzarria. Bi urte eta erdik askorako eman dute. 📎📷 Ainitze Agirrezabala

Euskal Herriko gatazka politiko eta soziala hizpide, elkarrizketa bultzatu eta elkarbizitzan sakontzeko asmoz, lanordu asko eman dituzte zenbait herritarrek Azpeitiko Bizikidetza Foroan. Bi urte eta erdiko esperientziak eman diena biltzeko, forokideen testigantzak jaso ditu Uztarriak. Foroan hitz egin, landu eta hausnartutakoaren inguruan adostutako hamabi puntuak uztarria.eus-en irakur daitezke.

**ALAITZ AGUADO
MANOLI URANGA**

|| Adina. 39 eta 63 urte.

“Terapia izan da”



“Foroan parte hartzeko gonbita amak jaso zuen [Manoli Uranga], baina iktus baten ondorioz afasia du; burua ondo du, baina hitz egiteko zailtasunak ditu. Hasierako ideia zen amari laguntzea, eta aitortu behar dut horrek ere atzerakada ematen zidala, nik ez nuen gogorik, baina amak nahi zuen. Hala hasi zen



Azpeitiko Bizikidetza Foroaren agurreko une bat, Sanagustinen, abenduaren 6an. || Mailo Oiarzabal

gauza, baina azkenean beste bat gehiago izan naiz foroan. Nire ama PSE-EE alderdikoak izan da beti, eta Azepeitan HB ilegalizatu zutenean, zinegotzia izan zen. Politikan aritu zen urte guzti haietan, etxean erasoak jasan genituen, koktelak jaurti zizkiguten, hamar urtez bizkarzainekin ibili zen... Oso garai gogorra izan zen. Horregatik, markatuta egon naiz Manoliren alaba bezala, eta beti distantzia markatu nahi izan dut etiketa horretatik. Baina foro honi esker amarekin ere sekula hitz egin ez ditudan gaiez hitz egiteko gai izan naiz. Pertsonalki terapia izan da niretzat, liberazioa. Saio asko oso emotiboak izan dira; negar asko egin dugu. Ez dakit den foroan parte hartu dudalako edo gizartea aldatu delako, baina nik an-tzematen dut aldaketa. Prozesuarekin bi urte pasa generaman, eta nik banuen prozesua ixteko gogoia, baina guk egin badugu edozeinek egin dezake ariketa”.

JEXUX AIZPURU

||| Adina. 52 urte.

“Foroa motz geratu da”



“Gonbita jaso nuenean ez nuen uste bizikidetzara politikara mugatuta bakarrik landuko genuenik; izan ere, duela urte batzuk ekonomia krisia medio, porrot egin zuen gure enpresak, eskratxe batzuk jaso nituen, eta momentu gogorrek eta zailak bizi izan nituen. Oso jende atseginarekin egin dut topo taldean, oso esperientzia ona izan da, baina elkar-

bizitza lortzeko, oraindik ere, gauza asko daude egiteko. Zentzu horretan, foroa pixka bat motz gelditu da. Nik bizikidetzara ulertzen dut politikaz haratago, eta beste hainbat arlotan ere gauza asko dago egiteko: gazteak, ekonomia, inmigrazioa, emakumeak, adinekoak, homosexualitatea... Zentzu horretan, Udalak sustatutako egitasmoa izanik, frustrazioa sentitu dut foroa politikara mugatu izana. Horrez gain, egon dira hainbat gai ez direnak asko sakondu, albokoari minik ez emateagatik eta errespetuagatik isildu egin direnak. Dena ez da politika, eta herritarrak animatu egiten ditut foroak sortu eta bestelako gaietan sakontzera”.

MIREN ALCEDO

||| Adina. 53 urte.

“Askatasun-eza sentitu dut”



“Sorpresa handia izan zen forora deitu izana. Ez dakit zergatik deitu ninduten. Bere garaian Aralarren egon nintzen, liburu bat idatzi nuen ETAKidei buruz... Lehen saioan nabaritzen zen urduritasuna, dena den, espero nuena baino gehiago lortu dugu. Hasiara, batez ere, oso indartsua izan zen. Guztiok oso zintzoak izan gara. Igoal den-dena ez dugu esan, baina esan duguna hala sentitua izan da, benetakoa izan da. Errespetuz hitz egin eta entzun dugu, besteen azalean jarri gara, baina une jakin batzuetan askatasun eza sentitu dut. Bi aurkezpen publiko egin ditugu eta bietan presoen gaia ez dugu aipatu, eta hori deigarria da. Iraganaz asko hitz egin dugu, gatazkaren zergatiaz ere bai, baina nola egin gertatutakoak ez errepikatzeke, horretaz ez dugu hitz egin. Konpromiso eza ere sentitu dut: biltzen ginen bitartean eskubide urraketa lepo izan dira eta publikoki ez dugu ezer esan. Taldean faltan bota dut preso ohi bat eta hildako biktima baten senide bat. Bi urte eta erdi, eta gero zer? Hori zen galdera, hausnarketa guzti hori nola eraman herrira. Horretarako eragile sozial bihurtu beharko genuke, eta horretan ez gara adostu. Parte hartzeak merezi izan du, luxuzko aukera izan da”.



JABIER ALTUNA

Adina. 50 urte.

“Errespetua lortu dugu”



“Ez nuen lehen aldia bizikidetzako foro batean parte hartzen nuela, aurrekoak zoritxarrez gaizki atera ziren, eta errezeloz eta alferguraz hartu nuen gonbita. Esperientzia, ordea, oso aberasgarria izan da, sakona. Balio handiko pertsonak ezagutu ditut, eta hasierako zailtasunak horiek amortizatu ditut. Aitziberrek lehen saioan galdetu zigun gutako bakoitzak zer eskatu eta zer eskaintzen genuen. ‘Errespetua’, esan genuen gehienok, eta hori lortu dugu. Egia da bileretan ez dugula dena esan, ez ditugu gai guztiak sakon landu, autozentsura egon da, albokoa ez mintzeagatik. Uste dut esperientzia honen balioa dela herritarrei erakustea oso desberdin pentsatzen dugun herritarrok, aurrez aurre ibili garenok, gai gara desberdintasunak albo batera utzi eta errespetuz elkarrekin hitz egiteko”.

JOXE ARREGI

Adina. 64 urte.

“Kalitate handiko taldea da”



“Kalitate handiko pertsonen osatua izan da taldea, eta gure artean errespetua, entzuteko gaitasuna eta konplizitatea hasieratik izan dira. Autozentsura pixka bat beti egon da, besteari min ez ematearren, baina gauzak nahiko gordin eta garden azaldu ditugu. Frustrazioa ere aitatu zuten foroak hainbatek, arrazoiarekin, izan ere, oraindik hemen bidegabekeria politikoa indarrean dago: erabakitze-eko eskubidea aitortzen ez duen estatus po-

litiko baten azpian gaude. Eta frustrazioa, beharbada, gai horiek behar bezalako sakontasunez tratatu ez ditugulako. Azkenean, sufrimenduari erreparatuta, eta bestearen lekuan jartzen saiatuta, zintzoak eta gaiztoak, banaketa dualista hori behin eta berriro gainditu dugu gure ariketetan, eta hori funtsezkoa da herri honetan bizikidetzako eraikitze-ko. Beharrezkoa da halako foroak sortzea, baina ez preseski gatazka politikoaren inguruan bakarrik”.

FELIPE MURILLO

Adina. 29 urte.

“Nik pila bat ikasi dut”



“Faranduleorako-eta deiak jasotzera ohituta gaude, baina egia esan, harritu ninduen Udalak honetarako niri deitu izana. Gatazka lehen pertsonan bizi ez dugun jendea ere foroan izatea nahi zutela-eta atera zen nire izena. Hasieran, asko kosta zitzaidan nire lekua aurkitzea, bizipen gogorrek eta sufrimendu handidun jendea zegoen eta. Baina bestearen sufrimendura gerturatzen zara, enpatizatzen duzu eta, gero, oso eroso izan da hitz egitea. Nik pila bat ikasi dut postura desberdinak nola eta non batu daitezkeen; denon gizatasunak elkar hartzen du, nolabait. Inertzia asko hausteko aukera izan dugu. Oso esperientzia ona izan da. Foroan landutakoa herrira zabaltzeko edo horri jarraipena emateko aukerak ere aztertu ziren, baina gaia delikatua da eta ez da erraza”.

MIREN ODRIUZOLA

Adina. 72 urte.

“Bizikidetzako posible da”



“Bazen garaia urteetan elkarren kontra aritu ginenak, desberdin pentsatzen genuenak, elkartu eta elkarbizitzaz sakontzeko. Gogoz hartu nuen gonbita. Lehen saioak gogorrak izan ziren oso; bakoitzak geure historia kontatu genuen, eta konturatzen zara besteak ere zer sufritu duen. Nire historia kontatu nuenean, altxatu, nigana etorri eta besarkada eman zidan batek. Nahiz eta hainbat gairen inguruan desberdin pentsatu, gauza asko adostu ditugu; beste asko ez ditugu adostuko, baina errespetuz onartu gara elkar, eta oso lagun egin gara. Presoen gaia, esaterako, zeozer aitatu dugu, baina ez gara sakontzera ailegatu. Benetan borondatea jartzen badugu, bizikidetzako posible da, eta beste Euskal Herri bat izateko itxaropena dut. Elkarriketan eta errespetuan oinarritutako kultura politika berria da etorkizuneko giltza. Eragile sozial bezala jarraitzeko aukera ez zen adostu taldean, konpromiso maila handia baita, eta onaino iritsi gara eta hor utzi dugu”.

MERTXE URTUZAGA

Adina. 53 urte.

“Presoen gaia falta izan da”



“Ezustean hartu nuen gonbita. Haisieran, taldean zeintzuk izango ginen ez genekien, eta dena zen sorpresa. Hasieran gogorra egin zitzaidan ezagutzen ez duzun jendearen aurrean nire istorioa kontatzea, gaia bera gogorra delako. Baina konfiantza hartu ahala, konplizitate handia sortu da taldean, eta horrek asko laguntzen dizu. Gainera, une batean baino gehiagotan erakutsi didate nirekin daudela. Esaterako, irailaren 27an, nire lehengusu Anjel Otaegi gogoan, era batera edo bestera taldekide guztiak erakutsi zitzaizkiren euren elkartasuna. Ikusi dut jende gehiagok ere sufritu duela, eta haien lekuan ere jarri naiz. Hainbat gairen inguruan hitz egiten joan zaigu denbora asko, eta niri gustatuko zitzaizkidan presoen gaia, adibidez, gehiago lantzea. Gertatu direnak ez errepikatzeko, halako foroak sortzera animatzen ditut herritarrek. Esperientzia ederra izan da oso”.*

AITZIBER BLANCO GOIKOETXEA Bizikidetzeta Foroaren koordinatzailea

“Errespetuz eta desberdintasun ideologikoak azaltzeko beldurrak lagata, elkar uler gaitezke”

Elkarbizitza foroak dinamizaten eskarmentua du Aitziber Blanco Goikoetxeak (Bilbo, 1972). “Errespetua ardatz, sortutako konplizitate giroak gai korapilotsuez hitz egitea ahalbidetu” duela dio. **Azpeitira etorri zinenen aztertzeko beldurrak lagata, elkar uler gaitezke**

Elkarbizitza foroak dinamizaten eskarmentua du Aitziber Blanco Goikoetxeak (Bilbo, 1972). “Errespetua ardatz, sortutako konplizitate giroak gai korapilotsuez hitz egitea ahalbidetu” duela dio. **Azpeitira etorri zinenen aztertzeko beldurrak lagata, elkar uler gaitezke**

Nolako esperientzia izan da Azpeitiko foroa koordinatzea?

Luxua eta oparia izan da, lekuko bezala bizitakoagatik. Eskerrak ematen dizkiet taldeari eta udalari, nora gindoazen jakin gabe konplizitate jarri dutelako nigan.

Hasieran, zeure kezkek eta esperantzak izango zenuen. Hasierako espektatibetatik prozesuak eman duenera zer balorazio egiten duzu?

Prozesu batean badakizu nola hasten zaren, baina inoiz ere ez nora iritsiko zaren, eta horrek antisietate eta beldur asko eragiten du, izan ere uko egiten diozu azken emaitzaren kontrola izateari. Bai bermatu behar ditugula baldintza batzuk eta prozesuarekiko zaintza, pertsonen artean edozer gauza sortzeko, jakinda sortzen eta hitz egiten denaren jabe hor dauden pertsonak direla. Horrek bakoitzaren aldetik konpromiso eta inplikazio handia eskatzen du. Hustuketa handia dago, interpelatua sentitzen zara... Ibilbide zintzoa eta sakona egin dute, eta prozesua zaintzen joan diren neurrian baldintzak sortu dituzte gai desberdinak lantzeko. Espektatiba bat zen azkenengo emaitza zena zelarik ere

prozesua ez haustea, eta zentzu horretan, oso pozik nago, beraiek erabaki dutelako noiz itxi eta nola.

Ohitu gabe gaude desberdinen artean gai konplexuez hitz egiten. Zer esan nahi du halako prozesu bat bizitzeak?

Ikuspegi ideologiko-politiko desberdinak ditugu, eta arrazoi desberdinengatik etiketa potoloa jarri diogu elkarri, segurtasuna ematen digulako jakiteak gureak edo besteak diren. Prozesu horien bitartez saiitzen gara aurkitzen ezaugarri amankomunak, bizipen pertsonalak, non elkarrengana hurbildu gaitezken, etiketa horiek kentzeko. Konturatu gara errespetuarekin eta desberdintasun ideologikoak azaltzeko beldurrak galduta, bizipenetan elkar ulertu gaitezkeela.

Foroan konplizitate eta errespetu giroa sortu zela adierazi duzue. Bi osagai horiek ahalbidetu al dute gai korapilotsuez hitz egitea?

Bai, duarik gabe. Modu naturalean zihurrenik sekula elkartuko ez ziren pertsonak bat-batean aurkitzen dituzte zeintzuk diren elkartzen dituzten gaiak, eta horietan sakonduz konplizitatea sortzen da. Eta hori Sanagustinen ikusi zen. Elkar errespetatu, maitatu eta izugarriko konplizitatea duen talde bat zegoen.

Zenbait gaitan, errespetuak askatasuna jan duela aitatu dute foroak hainbatek.

Bai, egon da autozentsura, baina ez inork ukatzen zuelako gai horiez hitz egitea; baizik eta pertsona horiek bazekiten gai batez hitz egitean gai horrek bestearengan zer sentimendu edo zer min eragin zezakeen. Gaietaz zintzoki eta argi hitz egin arren, harremanak eta komunikazioa zaintzeak garrantzia izan du. Biluzte horretan sekulako errespetua eman da,

baina, aldi berean, oso ariketa sakona eta benetakoa izan da.

Ibilbideari bukaera eman diozue landutako hainbat gairen inguruan foroak ki-deek adostutako gutxieneko ondorio batzuk plazaratuta. Asko kostatzen al zaizue ondorio horietara iristea?

Denbora, batez ere, hustuketa egiteko behar izan dugu. Adibidez, sufrimenduz hitz egin du-nuenean, badaude taldean pertsonak oso zuzenean bizi izan du-tenak, eta halakoetan, bizipen ho-riek indarra hartzen zuten, eta ibil-bide horretan denbora behar izan dugu. Gero, puntuak adostea zaila ez da izan, ia bide bat, lanke-ta bat eginda zegoelako. Asko hitz egin dugu. Oso une hunkigar-riak bizi izan ditugu taldean, be-sarkada esanguratsuak eman di-tuzte, bidailagunen artekoak. El-kartasun izugarria azaldu dute; eta baten batek esaten zuten: “Gurea egin dugu bestearena”.

Bukaerako ekitaldian herri-tarrak bizikidetzan urrat-sak egitera deitu zenituz-ten. Pentsatu al duzue talde eragile bezala-edo aritzea?

Beraiek herri mailan adierazi nahi izan dutena da, hamar onenak izan gabe, pauso horiek emateko gai izan badira, beste asko ere gai izan daitezkeela. Beraiek eragile bezala beraien burua une honetan ez dute ikusten, baina uda-leko alderdien arteko adostasun eta konpromiso horrek ahalbidetu zuenez foroak, agian udaletik ere gauza gehiago egin daitezke bizikidetzaren gaia lantzeko grina duen jendeari guneak, espazioak edo tresnak ahalbideratuta. Hori da pixka bat uretako uhinak bezala. Zuk botatzen duzu harritxo bat uretara eta uhin horiek ez dakizu nora arte iritsiko diren, baina uhinak sortu dira. Ez baduzu harririk botatzen, ordea, ezer ere ez da aldatzen, ura geldirik geratzen da. Foro honek ere uhin batzuk sortu ditu, eta horregatik animatu dituzte bai herritarrak, bai politikariak uhin horiek sortzen jarraitzea.✘



Aitziber Blanco, foroaren prozesuan kolaboratzailea. ||| Aintze Agirrezabala

Taldeak lotzeko taldeak

Iraurgi Saskibaloia aurten estreinatuko da danborradan. San Sebastian bezperakoan ez ezik, bandera jaitsieran ere hartuko du parte. 📧📧 Mailo Oiarzabal

Sansebastianetako helduen danborrada inoiz baino jendetsuagoa izango da aurten. Talde berri bat gehituko zaio parte-hartzaileen zerrenda luzeari, Iraurgi Saskibaloia-aren. Horrela, 27raino iritsiko da urtarrilaren 19an danborrak eta txapak astinduz kalez kale ibiliko diren taldeen kopurua; ibilia irekiz aurretik joango diren Gastadoreekin, 28 taldek osatuko dute, beraz, Azpeitiko helduen danborrada.

Oñazbideko Gastadoreena izan zen, hain zuzen ere, Iraurgiaren aurretik festara batu zen

azken danbor taldea; 2012an irten ziren lehen aldiz. Azken hamarkadan asko hazi da helduen danborrada. 2007tik aurrera, eta Iraurgikoak kontuan hartuta, bederatziko talde estreinatuko dira San Sebastian bezperako festan: Izarraitx Txoko, 2007an; Ziripot eta Basozabal, 2008an; Loiolabide Zahar, Loiolatxo, Zulo Zabal eta Ollagorra, 2011n (Loiolabide Zaharrekoek, hala ere, 2010eko bandera jaitsieran egin zuten lehendabiziko agerrialdia); Oñazbideko Gastadoreen danborjotzaile taldea, 2012an; eta aurten, 2017an,

Iraurgi Saskibaloia. Danborradari lotuta “plazak gehiagorako ez du ematen” esaldia aspaldikoa den arren, aurten ere moldatuko dira, bada, beste 44 lagunentzat tokia egiteko.

Bigarrenengoan, bai

Orain dela bi urte hasi ziren Iraurgikoak helduen danborradan taldea ateratzeko asmoarekin lanean. “Iaz ateratzea nahi genuen, baina gauzak asko korapilatu zitzaizkigun. Emakumeen taldearen igoerarekin, eta gizonen LEB mailako taldearekin, lan asko pilatu zitzaizkigun eta danborradarena pixkat alde batera utzi behar izan genuen. Bi urteko epea genuen taldea ateratzeko; aurtengorako prestatu izan ez bagenu, aukera galduko genukeen”, dio Maier Lizasok. Azpeitiko eta Azkoitiko saskibalo klubaren lehendakaria izateaz gain, danborradako taldeari dagozkion kontuetarako osatu duten batzordeko kide ere bada Lizaso. “Sei bat lagun gaude hor; batzordean hartutako erabakiak zuzendari-tzara eramaten ditugu, eta horrela egiten dugu lana”, azaldu du. Sansebastianetarako taldea tajutzeko lanik zailena.

Sansebastianetarako taldea tajutzeko lanik zailena “lanari ekitea bera” izan dela uste du Lizasok. “Horretara jarri garenean, nahikoa erraz eraman dugu aurrera, ez dugu aparteko zailtasunik izan”. Jantziak aukeratzeko, esaterako, “denon neurrirako zer-

Jaitsiera berezia

Asteburuaren atarian egokitu dira aurten San Sebastian festak. Eta San Sebastian eguna ostirala dela aprobetxatuz, urtarrilaren 20ko gauerdian egiten den bandera jaitsieran parte hartzeko gonbita luzatu die Udalak helduen danborradako talde guztiei.

Azken urteetan, eta ezarritako txandak eginez, bezperan ateratzen diren taldeetako seik jotzen dute bandera jaitsierako ekitaldian. Aldizkari hau bukatzerako oraindik itxi gabe zegoen taldeek erantzuteko zuten epea, baina bandera jaitsiera ere ohi baino jendetsuagoa izango da 2017an.*

Hazparnekoak

Helduena ez da izango 2017an inoiz baino jendetsuagoa izango den danborrada bakarra. Umeenak ere, San Sebastian egunean, inoiz baino talde gehiago izango ditu.

Urtarrilaren 20ko eguerdian egingo den danborradan, ordea, kanpotik etorritako gonbidatuak dira parte-hartzaileen kopurua gizenduko dutenak. Aurten beteko da Azpeitiaren eta Hazparneren arteko senidetzaren 30. urteurrena eta, hori ospatzeko egitasmoen barruan, Lapurdiko herriko 40 ikaslez osatutako talde batek hartuko du parte Azpeitiko danborradan.*



Ibon Guridi (ezkerrean, danbor-jotzaille jantziarekin) eta Beñat Aldalur (zuzendaria).

bait" egin behar zutela argi zuten; sukaldariz jantzita irtengo dira saskibaloikoak danborradan. Klubaren kolorea den granatea presenten izango zutela ere erabakia zuten "eta, nola ez, Iraurgiren ezkutua". Bai trajeak, bai bandera eta bai danborrak herrian egin dituzte, Urkizunean aurreneko biak eta Oriyoren eskutik besteak; "hori ere argi genuen", nabarmendu du lehendakariak.

Buruhausteren bat aipatzekotan, ezustean harrapatu dituen banderadunaren eta kantineren kontua izan dela dio Lizasok: "Bande-

raduna eta kantinerak ere klubekoak izatea nahi genuen guk. Nik ez nekiena zen, urte batetik bestera ia talde denetan lotuta izaten dituztela kantinerak. 17-18 urteko neskek izatea nahi genuen, gure junior taldekoak, baina denak zeuden beste talderen bati baiezkua emanda! Kostatu zaigu baina azkenean, behintzat, klubekoak izango dira horiek ere".

Batasuna indartzeko

Hasieratik argi eduki duten oinarrizko gauza da, izan ere, Iraurgi Saskibaloiaren danborra-

||| "Iazkorako baimena genuen, baina hainbeste gauza genituen esku artean... Ez zigun denborarik eman"

||| "Iraurgi beti izan da familia bat bezala, lagunarte handiko kluba, beti eduki izan dugu oso giro ona"

MAIER LIZASO

Iraurgi SBko lehendakaria

dako taldean partaide izateko ezinbestekoa izango dela klubarekin lotura zuzena izatea. Jokalariak, entrenatzaileak, zuzendaritzakoak eta klubeko lan-talde ezberdinetan aritzen diren kolaboratzaileak izango dira, beti, taldearekin aterako direnak. Horrela jaso dute danborradarako taldearentzat prestatu dituzten estatutuetan. "Adibidez, baten batek kluba uzten badu, ezingo dio trajea nahi duenari utzi; klubeko beste kideren bati eskaini beharko dio, edo bestela klubari itzuli", zehaztu du Maier Lizasok. Beñat Aldalur jokalaria eta entrenatzailea izango da taldeko zuzendaria; bere alboan joango den zuzendari txikia, berriz, zozketa bidez aukeratuko dute urtero, eta teknifikazio eskolako 5. mailako neska-mutilen artean egingo dute zozketa hori.

Klubaren barruan "batasuna" eta "loturak" sendotzeko ideiarekin hasi ziren danborradarako taldea prestatzen, eta asmo hori konfiantzaz hartuta joan dira urratsak egiten. "Azpeitiarrontzat, San Sebastian eguna oso egun seinalatua da. Iraurgi, berriz, beti izan da familia bat bezala, lagunarte handiko kluba, beti eduki izan dugu oso giro ona geure artean. Orduan, irudituz zitaizun klubaren barruan lotura hori indartzeko modu polita izan zitekeela, taldera iristen joaten direnak ere lotzeko bide bat", azaldu du Lizasok.

Ildo horri eutsita, danborradaren aurreko afaria ISB tabernan egingo dute. Han elkartuko dira taldea osatuko duten 44 lagunak. Talde berrien kasuan ohikoa denez, kaleko desfilean azken tokian joango dira; zezen-plaza ingurutik abiatuko dira. Eta, estreinaldia borobiltzeko, bandera jaitsieran ere parte hartuko dute.★

Inazio Uriaren itzal hori

Aukerakoak izanik deskontentu edo haserrean motiboak, ez dira beti egoten nor bere gain. Haserre bestek eragina dugunean auzia eutsi eta gorde ala agerian jarri eta bota, erabakitzea izaten da. Erabaki zaila, ondo pentsatu beharrekoa.

Haserre kolektiboak, gutako bakoitzarengan eragin nabarmena izaten du eta gizartea, arazo bezala gabe, zitaldu eta petraldu egiten du. Haserre egonik bakoitzak bere sentimendua eta borondatea besteekin konpartitzea erabakitzen dugunean, arazoa edo auzia konpondu asmoz edo nahastu asmoz, ondoeza baretu edo besteei kutsatu egiten diegu. Haserre zerranda luzeko azkenetako bat Gipuzkoako Zubietan ezarri behar den erraustegiarena da. Badirudi, gaur egun, garrantzia handikoa izanik ere, hondakinen tratamendua dela gipuzkoarrok dugun hil ala biziko eztabaida nagusia, gainerako euskal herritarrek ez bezala. Ez soluziorik ez daukagulako, baizik eta bi edukiz batzuek besteena ez dutelako onartzen, eta alderantziz.

Gobernu batek eginga, kosta ahala kosta, jo eta xahutu, denon diru guztiak erre kara bota behar badira ere, errotik desegiten du besteak, hurrengoa iritsi eta, berriro, buelta osoa ematen dion arte. Bitartean asma ezin ahala soluzio txiki ugari da eta gutako bakoitzak burura ekarri ahalako argudio moxkorren errosarioa bukatzeko daukagu oraindik. Beste batean kontatuko dizkizuet etxe aurrean daukadan auzo konpostaren txistea eta etxola enigmatikoen alegia.

Gipuzkoarren gehiengo handiak erraustegiaren irtenbidearen aldeko arduradun politikoak aukeratu zituen, duela urte eta erdi, zigor politiko gogorra ezarriz erraustegiaren kontrarioei. Geroztik, orduan osasunaren defentsakoa zen diskurtsoa Donostia aldera mugatu da, kaltearen unibertsaltasuna Donostiatik Lasartera eta inguruetara mugatuz. Gainerakoetan eskuina eta bere konplize politiko eta ekonomikoen ne-



|||||||ramon etxezarreta|||

|||Onartezina egiten zait, eta esan beharrean gertatu, Altuna y Uriaren aurrean egindako kontzentrazioa

gozio eta balizko lapurretak haizatzea da nagusi.

Altuna y Uria

Bitxia da nola eskola, kultur etxe, ospitale edo gizarte ongizateko edozein instalaziotako obra publikoetako konstruzio enpresak nekez erlazionatzen ditugun negozioekin eta lapurretekin, eta nola talde armatuak eta enparauek begiz jotako proiektuek, lapurretara faraonikotzat jotzen ditugun, pertsonak asasinatzeraino.

Onartezina egiten zait, eta esan beharrean gertatu, Altuna y Uria enpresaren aurrean egindako kontzentrazioa. Jende barregarri gutxi izan zen, gehiegi baina. Egun joanetako gau beltz hiltzaile eta odoltsuaren itzal luzea iruditu zitzaidan, eskubideak errespetatzen ez ziren garaietako mamua, bere gainetik lotsa guztiz kendu ezin duen herri baten arimaren zatia, Azpeitiarik doilor eta mingarriena.*





Poteorako APPa



TALDEKO ESKAERAK MUGIKORRETAN

- Nahi adina talde sortu eta kideak gehitu.
- APPa ez duten pertsonak gonbidatu bezala sortu.
- Jakinarazi kideei taldearen kokapenaz.
- Egin eskaria mugikorretik, edozein momentutan aldatzeko aukerarekin.
- Taldekide bakoitzak bere eskaria egingo du, eskaera osoa momentu oro ikusteko aukerarekin.
- Eskaera osoaren gutxi gorabeherako prezioa ere kalkulatu du.
- Plater konbinatu eta ogitartekoak ere eska daitezke.


Deskargatu zure mugikorrera
Play Store edo App Store bitartez

Informazio gehiago:
www.mufhi.com

Ukabi garatutako APPa



Frustrazioak agerian

Seme-alaben liskarrak konpontzeko asmoz, giza legez elkartu diren bi bikoteren artean iskanbila lehertuko da, bataren eta bestearen frustazioak azaleratuz, 'Jainko Basatia' obran.  Ainitze Agirrezabala

Aitziber garmendia, Mikel Losada, Andoni Agirregomezkorta eta Tessa Andonegi aktore ezagunak oholtzaren gainean ariko dira, *Jainko Basatia* komedia dramatikoaren baitan.

Obraren tramari dagokionean, bi bikote ezkondu elkartuko dira, beraien seme-alaben arteko liskarrak konpontzeko asmotan. Giza legez eta edukazio handiz hasi den bilerak beste bide bat hartuko du, elkarri kristorenak eta bi esaten hasten direnean. Iskanbilaren erdian bataren eta bestearen frustrazioak eta miseriak agerian geratuko dira.

Lau aktore, lau pertsonaia

Aitziber Garmendia Aneren paporean ariko da. Banketxeko langilea da, eta emakume lasaia dirudi, alkoholaren aparretan murgiltzen den arte. Mikel Losadak hezurmamituko duen Alex Aneren senarra da. Arrakasta handi-

DATUAK

||| **Zer.** 'Jainko basatia' komedia dramatikoak.

||| **Eguna.** Urtarrilak 27 (ostirala). ||| **Ordua.** 22:00.

||| **Tokia.** Soreasu antzokia.

||| **Antolatzailea.** Kulturaz Azpeitiko Kultur Kooperatiba. ||| **Sarrerak.** 'entradium.com/entradas/jainko-basatia' webgunean, 8, 10 euroren trukean.

ko abokatua da Alex, zintzoa, adarjotzailea eta mugikorrik gabe galduta dabilen horietakoa.

Obrako beste bikotea Andoni AgirregomezkortaK eta Tessa Andonegik pertsonifikatzen dituzten Xantik eta Veronikak osatzen dute. Xanti burdingilea da, lasaia, eta emaztearen gonapean bizi dena, bileran zehar lehertzen den arte. Veronika, berriz, kultura handiko etxeokandre aurrerakoia da. Trago pare bat hartuz gero erresumindu egiten da, bere frustrazio guztiak azaleratuz.*

KOMEDIA DRAMATIKOA

4 aktore. Aitziber Garmendia, Mikel Losada, Tessa Andonegi eta Andoni Agirregomezkorta aktore ezagunak ariko dira oholtzan.

90 minutu. Txalo produkzioak Jainko Basatia obraren iraupena ordu eta erdikoa da.*

BESTERIK

1 Ene kantak: 'Astonauta'

Umeentzat antzerkia.

||| **Eguna.** Urtarrilak 7. ||| **Ordua.** 16:30. ||| **Tokia.** Soreasu.

||| **Antolatzailea.** Kulturaz.

2 Bizikidetzaz, mahai-ingurua

Bizikidetzaz emakumeen ahotsetan landuko dute.

||| **Eguna.** Urtarrilak 10 (asteartea). ||| **Ordua.** 19:30.

||| **Tokia eta antolatzailea.** Emakumeen txokoa.

3 Sahararen alde erakusketa

Sahara oinarri, Udane Juaristiren lanak ikusgai izango dira.

||| **Eguna.** Urtarrilak 10etik 20ra.

||| **Tokia.** Sanagustin.

||| **Antolatzailea.** Khamar Sahararen aldeko taldea.*

||| **Azpeitiko ekimenez informazio gehiago:** uztarria.eus/agenda



'Jainko Basatia' komedia dramatikoaren antzezleak. ||| **Txalo Produkzioak**

"Il Partigiano" azpeitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egingako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.

ETXERA ERAMANGO DIZUGU

Telefonoa
943 08 09 13

ildefonso gurrutzaga, 12 behea



|||ZER DIO?|||

Danborrada koloretsua

Azpeitiko danborrada telebistan edo beste medio batean ikusten ari dena, azpeitiarra ez bada edota ohiturarik ez badu danborrada ikusteko, harrিতта gelditzen da oso koloretsua ikusten duelako herri honetan izaten den danborrada. Agian, norbaitek galdetuko du ea zergatik, beste inon ez bezala hain koloretsua den, esan nahi dut zer dela eta hainbeste jantzi desberdin erabiltzen dituzten.

Baserritarak, pilotariak, eskoziarrak, toreroak, tirolesak, arrantzaleak, Zumalakarregiren boluntarioak... baina, ez da halabeharrez gertatu horrela izatea, baizik eta historia gatazkatsu baten ondorioa da, eta saiaturiko naiz historia hori azaltzen, izan ere jende askok ez daki horren berri eta oker ez banago aipatuko ditudan gorabeherak, nik dakidala, behintzat, ez dira inoiz argitaratu.

Danborrada lehenengo aldiz pasa den mendeko 60. hamarkadan atera zen kalera, ez nago zuir

zer urte izan zen, 1965ean, agian. Kontua da OARGI gazte erakunde zela antolatzeaz arduratzen zena. Bestalde, danborrada egitearen ideia Don Baldasar eta Don Zezilio apaiz donostiar gazteena izan zen, oker ez banago OARGIko kontziliarioa Don Zezilio zen eta hura izan zen asmo

||| Ez da halabeharrez gertatu horrela izatea, baizik eta historia gatazkatsu baten ondorioa da

||| Gazte mugimendua indartzen ari zen, zapal dutako herria ginelaren kontzientzia hedatzen, alegia

hura bultzatu zuena. Asmo hura burutzeko jantziak lortu behar ziren eta danborrak ere bai. Horretarako Donostiako Napoleon jantziak alokatzen ziren denda batetik ekartzen ziren eta herriko suhiltzaileen uniforme zaharrak ere erabili ziren.

Urte haietan herrian gazte mugimendua indartzen ari zen, zapal dutako herri bat ginelaren kontzientzia hedatzen, alegia. Tesuinguru hartan kokatu beharko genuke, beraz, aipatzen ari naizen historia hau. 1967 edo izango zen. Iritsi zen antolatzeke garaia eta landetarrek esan zuten beraiek baserritarak zirela eta baserritar jantzita atera nahi zutela. Horrela egitea adostu zen, baina garaiko udalak –udal frankista, portzierto– esan zuten ezta pentsatu ere; hori ez zuela onartuko. Horren aurrean OARGIk erabakia hartu behar zuen: Udalari men egin ala landetarrekin bat egin. Eztabaida batzuen ondoren OARGIk erabaki zuen landeta-

rren proposamenarekin bat egitea.

Eskerrak sansebastian bezpera hartan eguraldi txarra egin zuen! Euria etengabe aritu zen. Udalak, danborrada egin nahi zuen eta talde txiki bat prestatu zuen horretarako, baina ez zen Sanagustinpetik mugitu eta urte hartako danborrada bertan behera gelditu zen. Danborrada ondoren, berdura plazan berbena zegoen antolatuta, eta hura bai, aurrera atera zen. Oso giro ona izan zen, jende askok parte hartu zuen. Horretarako Bizkaitik herritar ba-tzuek 'Oro' izeneko garagardoa ekarri zuten. Boikota egin zitzaion 'El Leon' garagardoiari.

Ondorengo urteetan hasi ziren lagun talde gehiago ere euren jantziak aukeratzen, gaur egun ezagutzen dugun danborrada bihurtu arte.


Eraldaketa soziala?*

||jexux arrizabalagal
(filosofian lizentziatua)

KIMU BAT
GARDEN *berria!*

KIMU BAT 25 urte +
Urrestila bidea. Azpeltia
943 15 00 85

HITZ GEZIDUNAK

	Batzarra	Daude	Intsektu mota	Espainiako hiria	Etxeko hizkeran, kokaina
	Erabiliak	Hitz lotailua	Espainiako hiria	Udo arrak	
	Deitura				
	Bokala				
Pl., su arma mota	Landare mota			Korrika antolatzaile	
Garra	Izena			Ur putzu artifizial	
		Bokal erre-pikatua	Gure planeta		
		Pl., musika tresna	Zenbaki bakoiti		
Galtziako ibaia		Naf Behe herria			Pozik
Zori joko mota		Gaixoa			
				Orea	
				Oinarrizko edaria	
Lumatuak					50
Altua					Nork atzizkia
			Musika nota		Bizkaiko herria
			Boroa		Bokala
Gorotza			Jakingo balu		

 Egilea: Luma

* Borrokalari azpeitiarra

SUDOKUA

						6	4
	9			5			7
			1	4		9	
9			5			8	
5			8		1		6
		3			6		9
	1		3	4			
8			2			9	
4	9						

IRAUR

MASAJE - OSTEOPATIA



Euzburuko Errezela 13, aldea
Mug. 676 299 300

- Kirol Masajeak
- Drainadura linfatikoa
- Oinetako erreflexologia
- Masaje terapeutikoak

- Osteopatia
- Estrukturala
- Digestiboa
- Garezurrekoa

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Urtarrilak 23 (astelehena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoen irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



|||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||

1 GUSTUKO DUGU

2 ONA DA

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

|||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

I	K	E	L	A	B	•	A	K	A	K	•
A	E	•	E	R	•	A	I	A	R	A	G
L	•	K	A	U	T	U	R	R	A	V	•
A	S	A	M	•	A	L	E	I	N	I	K
•	E	R	R	A	B	I	L	L	S	I	•
A	R	A	U	L	•	A	A	•	A	•	S
K	E	A	•	A	I	A	K	Z	E	•	•
O	C	O	I	S	V	R	O	T	•		
•	A	V	T	U	A	L	I	A	B		
•	C	•	O	•	O	•	B	•			

SUDOKUA

5	7	8	9	1	2	3	4	6	7	8	9
1	4	6	7	8	9	3	7	8	8	8	8
8	2	6	4	9	3	4	5	7	1	7	7
9	5	7	6	2	4	3	8	1	8	1	8
6	5	4	2	6	7	8	7	8	7	2	5
6	3	4	3	4	6	1	8	7	2	5	9
2	1	8	3	7	3	7	5	4	9	6	6
3	6	2	4	1	4	1	8	5	9	6	6
7	6	5	3	5	1	8	7	1	8	7	7
4	4	2	5	6	4	2	8	2	8	6	4

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

- 1** Karbono
- 2** Generoa

|||UZTARRIAREN EKAINEN LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA



Adei Belar
Uztarrria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 189. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian lehiaketaren irabazlea, otarra bete produktu eskuetan duela.



Urdalazpikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpiko Iberikoa

Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damao Azkue 6

ELKARRIZKETA DIGITALA Mikel Labaka (futbolari ohia/entrenatzailea)

“naturaltasunez ibiliz gero, futbolean ere hala hartzen zaitu jendeak”

III Mikel Labaka (Azpeitia, 1980) Realeko futbolari ohia eta entrenatzailea izan da 'Sanagustineko elkarrizketak' saioko azken protagonista. Joan den abenduaren 12an elkarrizketatu zuen Labaka Enekoitz Esnaolak, Sanagustinen. **Txikitan futbolari izan nahi al zenuen?**

Bai. Baina ez nuen ametsitsu itsu bat Realera iristeko, edo hortik bizitzeko. Ez nuen obsesiorik, behintzat. **16 urte zenituela Realera eraman zintuzten. Ikasketekin segitu zenuen.**

Magisteritza egin nuen Donostian, eta gero, Kirol Magisteritza Gasteizen. Gurasoei oso eskertuta nago, garai horretan norberak ikusten ez dituen gauza batzuk ikusarazten zizkidatelako.

Realeko lehen taldean egon zinen 24 urtetik 31ra arte.

Oso momentu onak bizi izan nituen. Baina izan ziren hain ondo pasatu ez genituen momentuak.

Bigarren Mailarako jaitziera hain traumatikoa izan zen?

Partida galtzen duzunean edo egoera ez dagoenean ondo, zure buruari jartzen diozu besteak gaizki egotearen ardura. Ikusten

duzu ingurukoek ere sufritu egiten dutela, eta, azkenean, pilota handitzen joaten da.

Azpeitian bizitzea abantaila bat izan al zen?

Bai, dudarik gabe. Azpeitian herritar askok ez ninduten Realeko jokalaria bezala ikusten, baizik eta Mikel bezala. Normaltasun handiagoa sumatzen duzu.

Zein da zure funtzioa Realeko lehen taldean?

Egunerokoan entrenamenduak prestatzen laguntzea, entrenamenduetan egotea, gure taldeen partidak ikusi eta jokalariei bakar-kako bideoak egitea, kontrarioen partidak ikustea eta haiei buruz iritzi bat edukitzea, eta ahal den neu-

rrian Eusebiori laguntzea, zuk zer ikusten duzun, zer egin daitekeen...

Futbolari profesionala zirela, zure iritziak agertu izan zenituen.

Positiboki edo negatiboki, jokalaria batek esaten duenak badu irismen handiagoa. Baina ildo ofizialetik ateratzen den iritzia ematen badu jokalaria batek, ez da hain gustukoa izaten. Ni saiatu naiz naturalki esaten gai bakoitzaren inguruan zer ikuspegi dudana, jakinda ez dela inorena baino hobea edo okerragoa. Ez dut ezer ezkutatzeko, eskalduna naiz, eta horixe esaten dut toki guztietan. Nik uste dut naturaltasunez ibiliz gero, jendeak ere naturaltasunez hartzen zaituela.*



Enekoitz Esnaola kazetaria eta Mikel Labaka futbolari ohia. III. Elustondo

EFEMERIDEAK

1778

Txerri-azienda. Txerriak kaleratzea debekatu zuten, batez ere prozesioak zirenean. Erreal bateko isuna jartzen zen.

1846

Azkoitian izurritea. Azpeitira zabaldu ez zedin herriko sendagile Joxe Ramon Sagastumek hainbat aholku eman zituen.

2002

www.uztarria.com abian.

Uztarria Kultur Koordinakundeak www.uztarria.com webgunea martxan jarri zuen.

Iturria: Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

III Egilea: Imanol Elias Odriozola.

III Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

BIDEOAK



'Bota lasai!' kale inkesta.*



Urte berri, asmo berri AMAIA ERRASTI gaztagilea

Urte berria asmo berrien garaia izaten dugu. Honezkerok, zuetako askok eta askok helbururen bat edo beste ipini duzue nik bezalaxe. Dena dela, gehienetan asmo horiek iragarpen oso txarra izaten dute, alegia, ez dira betetzen. Ez betetzearen arrazoietakoa bat da aurrez ez direla zehazten.

Elikadurari dagokionez, hainbat proposamen egingo dizkizuet urte berrirako, asmo txikietatik helburu handiak lortu ditzazkegulako:

Edari nagusia ura izan dadila. Gure txikiaren artean edari freskagarrien kontsumoa gehitzen ari da. Jatordu nagusietan ura edan. Hidratatzeko edaririk onena, merkeena eta eskuragarriena ura da.

Urrutiko janariak urruti eta bertakoak platerean. Bertako eta garaiko janarietatik aterako dugu etekin onena. Urrutikoa, urrutira joaten garenerako utziko degu. Hemen hemengoa eta han hangoa.

Janari prozesatuak alde batera utzi.

Egin berdeagoa zure elikadura. Egunean hiru fruta anoa eta bi barazki errazio jatea da gomendia.

Gozatu. Bai, gozatu, jatea plazer osasuntsua delako.

Eguneroko aldaketa txikiak emaitza handiak lortzeko aukera ematen digute!*



|||||aitziber aizpuru|||||



1. Zer gazta mota egiten dituzue?

Ardi gazta: naturala, ketua.

2. Zer zaporeko gazta duzu nahiago?

Gatzagi ukitukoa, bizia.

3. Non saltzen duzue?

Biltegioko dendan, herriko hainbat saltokitan eta

AEBetara eta Japoniara saltzen ere hasi gara.

4. Zenbat ardi dituzue?

Zortzi artzainen esnearekin egiten dugu gazta, eta 200 bat buru ditu bakoitzak.

5. Gazta on baten sekretua?

Esnea ona izatea.

6. Zenbat denbora behar du egiten denetik jateko prest egotera?

Esnea gordina denez, gutxienez bi hilabete.

7. Gazta hutsik ala lagunduta?

Gustuena hutsik.*

✉ Ainitze Agirrezabala

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euzkai Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Lamiakalea
943 15 16 40

ostadar optika
OPTIKAS - OPTOMETRIKAS

Jose de Arrese, 17
Tel. 943 810664
AZPEITIA

Isel Gado, 28
Tel. 943 851445
AZKOTIA

Xabier
magoak

Pinturak eta Parket Laminatuak f

Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermagoak.com

adi
ARTE ETA
DISENU
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrek) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talla 18:30 - 20:00

Jose Arrese katea, 3
943 81 28 08
arietadiseinu@gmail.com
Matrikula urte osoan zabalik

tuba
enrolatutako

Akretularitza
Fisika
Laboratu
kontabilitza

Gestio lanak
Finanzen administrazioa
Gestio inmoiliarria

Tel. 943 157 031 Faxa: 943 157 223
Lamiakalea, 43 - 20730 Azpeitia

KIRURI
K

JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Telefonoa: 943 81 5088
Faxa: 943 15 03 62

Alar
merceria

Loiolako Iratze Hiribidea, 9
Tel: 688 81 87 78

IRENE ALTUNA
ORADENA

Loiola Bide, 26 Tel: 943 81 51 87
www.ialtuna.com

Ehun urte, eta martxan

Otamendi familiak erloju denda hartu zuela mendea bete da. Zer konpondu ez ezik, zer kontatua ere badute. 🖋️👁️ Olaia Iraola

Azpeitian hainbat dira belaunaldiz belaunaldi negozioak heredatzen joan diren familiak. Batzuek oraindik bizirik diraute, eta horietako bat da herriko erdigunean kokatzen den Otamendi erloju denda. Duela ehun urte baino gehiago ireki zuen Pedro Maiztegi erlojugile eibartarrak, eta, urte batzuk geroago, Silvestre Otamendi (Azpeitia, 1896-1954) azpeitiar erlojugilea hasi zen Maiztegiarekin lanean.

1916. urtean, Maiztegi erretiroa hartu eta Silvestre Otamendiri utzi zion denda. Aurelia Otamendi (Azpeitia, 1926) 16 urterekin hasi zen bere aita Silvestrerekin lanean. Bere anaietako batek ere jardun zuen lanean, eta ondoren Jesus Otamendiri (Azpeitia, 1955) pasatu zituen kargua. Orduetik gaur egunera arte Otamendik eta Maria Elena Izetak (Zestoa, 1959) darraite negozioarekin aurrera, eta horiekin eta bertan lanean urte askoan zehar jardun duen Aurelia Otamendirekin bildu da Uztarrria.

Bizimodua dendan egin duela azaldu du Jesus Otamendik: “dendaren goian daukagu etxea, eta guretzat etxeko gehigarri bat da. Bizitza osoa igaro dugu bertan”. Aurelia Otamendirentzat, berriz, urte askoan zehar, etxe-

ra joateko pasabide bat ere izan da: “Garai batean, dendaren ondoan sagardotegi bat zegoen eta erlojutegia txikiagoa zen. Pasabide bat zeukan etxera joateko eta ataria apenas erabiltzen genuen etxera igotzeko”.

Ehun urte horiek azpeitiarrei nahiz bailarakoei esker bete dituztela aitortu du Jesus Otamendik: “eskerrak ematea besterik ez zaigu gelditzen”. Ingurukoei esker ona emateko eta ehun urte urtero betetzen ez direla ospatzeko, abenduaren 17an ospakizun bat egin zuten dendan bertan. Poesia errezitaldiek nahiz hainbat ekintzek izan zuten lekua 100. urtemugan.

Ehun urte, mila anekdota

Erloju-denda herri erdi-erdian egonda, ehun urteotan denetarik pasatu dela diote otamenditarrek. “Nazionalistak, errepublikanoak... denetarik sartu da denda honetara”, adierazi du Aureliak. Zezenzaleen bilgunea ere izan da, Silvestre zezenzale amorratua baitzen. “Afizio handia zuen zezenekiko eta herritar ugari biltzen ziren dendan”.

Aureliak gogoan ditu aitak kontatutako hainbat pasarte eta horietako bat da Lehen Mundu Gerra amaitu zenean, alemaniarrek



etxera zihoazela, Silvestrek dendan zituen eskumuturreko erloju guztiak erosi zituela haietako batek. “Hori garai hartan ba al dakizu zer zen?”, galdera egin du Silvestreren alabak.

Dendaren ondoan duela aspalditik dago botika, eta ehun urte hauetan erloju dendara hainbat eta hainbat lagun gerturatu omen izan zaizkie botikak erosteko asmoarekin. “Hori bihar bertan ere gerta daiteke”, nabarmendu du Jesus Otamendik.

Erlojuak konpontzen dituztenean, konponketak egitea amaitzen duten egunaren data jartzen diote erlojuari. Behin, gizon bat gerturatu eta erlojua konpontzen utzi zuenetik bi urte pasatu zirela komentatu omen zion Jesusi. Hura bilatzen lan handia izan ostean data-



Maria Elena Izeta eta Jesus Otamendi senar-emazteak, eta Aurelia Otamendi izeba, erloju dendan. || Olaia Iraola

ri begiratu eta honakoa esan omen zion bezeroari: “Bi urte luzeak izango ziren, ezta? Hamar ere pasatu dituk”.

Itxuraz antzera, barrutik ezberdin

Duela ehun urte Otamendi denda ez zen erloju denda soila; optika ere bazen. Astearte-
ro okulista joaten zen dendara eta azpeitia-
rrak nahiz inguruko herritarrak bertara gertu-
ratzen ziren. Horri lotuta ere makina bat ane-
dota kontatuko lituzkeela dio dendaren jabe-
ak.

Ordutik gaur egunera arte erlojutegia itxu-
raz ez da askorik aldatu. 1970ean erreforma
batzuk egin zituzten eta 2002an lurra aldatu
zuten. “Gainontzean, denda berdin-berdin

dago eta bere esentzia ez da aldatu”, azaldu
du Maria Elena Izetak.

Esentziak berdin jarraitzen duen arren, jen-
dearen ohiturak aldatu egin direla azpimarra-
tu du Jesus Otamendik: “Garai batean jende-
ak orain baino bitxi gehiago erosi ohi zituen”.
Gaur egun, erloju zaharrekin egiten du lan
gehien bat, hori baita egun duen eskaera
handiena. “Urte asko dituzten iratzargailu
nahiz erlojuak ekartzen dizkirate eta horiek
konpontzen ditut. Pazientzia handia behar
den lana da”.

Dendaren etorkizuna, ilun

Erloju dendaren etorkizuna ilun xamar ikus-
ten du bai erlojugileak eta baita bere emazte-

ak ere. Lau-bost urte barru jubilatzea du xede
Jesussek, baina Otamendi dendak ez ditu
ateak orduan itxiko; izan ere, Otamendiren
arabera, erretiroa hartu eta gero emazteak ja-
rraituko du negozioarekin. Bikoteak hiru
seme ditu eta haietakoren batek lan horri ja-
rraipena emango dion esperantzak ditu erlo-
jugileak, baina zaila izango dela uste du:
“Agian erlojutegi bat ez baina beste zerbait
egitera animatuko dira. Leku aldetik ezin ho-
beto dago kokatuta eta horretaz ezin dira ke-
xatu”.

Jesus eta Maria Elena senar-emazteek
“ikusmira handiko ofizioa” dela aitortzen
dute, baina kuriositateak bizitzeko lain ez
duela ematen ere nabarmendu dute.



1. Dendaren 100. urteurrena ospatzeko poesia errezitaldia egin zuten, eta jende ugari hurbildu zen. **2.** Erloju-denda, hasierako urteetan. **3.** Silvestre Otamendi eta Maria Arocena senar-emazteak, dendaren atarian.



TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdiak	025401
Eguneko zentroa	157496
Asepeyo	814400
Gurutze Gorria	853297
DYA-Donostia	464622

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	890017
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (URTARRILA)

1-7-8-13-20-23-31
Aranburu (Azpeitia).
943811350

5-12-19-21-22-27
Eizagirre (Azpeitia).
943 811274

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Urtarrilaren 25ean izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA || Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA || Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA || Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 || Larunbata: 09:00-13:00 GAZTELEKUA || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ ITURRI BERRIA.

Matxinbentan iturri berria estreinatu dute. Urteetan, Benta Zaharra baserriaren aurreko plazatxoan egon da auzoko iturri bakarra, eta orain berria zimetarioaren ondoan jarri dute, auzolanean.

3-9-14-15-17-26
Beristain (Azpeitia).
943 811350

GAUEZ, URTE OSOAN
Beristain (Azpeitia)
943811949

GARRAIOA


ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

KRUZ MARI AGIRRE

maketa-egilea

“Nire Lehen Lana andrearen zegamako jaiotetxea izan zen”

Ogibidez delineatzailea izana, jubilatuta maketa ikastaroa egin zuen eta denbora librean hori du afizio.  Ainitze Agirrezabala

Maketak egiteko afizioa nondik-nora datorkizu?

Etxean beti ezagutu dut jaiotza, zaletasun handia zuten aita-amek, eta guk ere ohitura hori heredatu dugu. Urtero, irail bukaeran hasi eta jaiotza berria egiten dut. Egia esan egundoko lanak hartzen ditugu. Neu delineatzailea izana naiz, eta jubilatzean jaiotza ikastaroa egin nuen, Donostian. Jubilatua, igeltseroak, medikuak, arkitektoak... denetik geunden, eta geure artean oso giro ona genuen. Urtean zehar maketak egiten ikasi genuen, eta urriaz geroztik jaiotzak egiten aritu ginen. Egundoko lan ederrak egin genituen. Nire lehen lana andrearen Zegamako Elizmuinoberrri jaiotetxearen maketa izan zen.

Zer lan gehiago egin dituzu?

Zegamako udaletxearen erreplika egin nuen, eta hango udalari oparitu nion. Anaia Garateren etxea ere egin nuen, eta Loiolako jesu-itei oparitu nien. Trenaren museoko eraikina egiten ere hasi nintzen, baina ate batekin deskuidatu eta ez nuen bukatu. Askok egin ditut: errainaren baserriaren maketa, Oñati-ko Aloña mendiko lagun batzuen txabola...

Zuk egindako jaiotzak ere leku bat baino gehiagotan daude ikusgai, ezta?

Segurako moja-etxe eta Arantzazuko atezaindegiko jaiotzak nik egindakoak dira. Bi seme-alaba ditut eta haiei ere egin nien berriak etxerako. Lau biloba ditut, eta izugarri gustatzen zaizkie egiten ditudan jaiotzak.

Zer-nola da prozesua?

Aurrena eraikinari argazkia ateratzen diot, hainbat neurri hartzen ditut, eta erreferentzia horiekin eskalan egiten dut. Polispanarekin egiten ditut eraikinak, eta kuterrak, soldeatzeko makina eta haridun zerra elektrikoa erabiltzen ditut. Elektronikaz ere neu arduratzen naiz. Gero, kolorea emateko pintura erabiltzen dut. Lan horietarako etxe gela bat dut tailer bezala egokituta.

Jaiotza ikustera jende asko etortzen al da zuenera?

Lagunak-eta etorri ohi dira. Garai batean, berriak, etxepeko ume guztiak etortzen ziren.

Egiteke duzun maketa zein da?

Zahartuta nago lan handiak hartzeko. Baserri politak-eta ikusten ditut, baina egiteagatik ez ditut egiten, esanahia izan behar dute.*



1. Kruz Mari Agirre eta Arantxa Aierbe etxe egongelan duten jaiotzarekin. 2. Loiola auzoko Anaia Garateren jaiotetxea, Errekarte baserria, maketan. 3. Zegamako udaletxearen erreplika. 4. Arantxa Aierberen jaiotetxea, Zegaman.



Iribarre goxoko mutila

Herrira loiola aldetik sartu eta garai bateko errekan txerloiraino lastrekan ibiltzen ginen parajeen etxea besterik ez dago orain. haiek denak eskubira laga eta herrira sartu bigarren borobilean, ez xanjuandegira ez landetara, perretxiko aldera. kotxe pestie dago perretxikoko patioan, garai bateko jolastokian. hantxe ibiltzen ziren gure ikasleak, eta ibiltzen ginen gu. fantasma bi-ziok atzean laga, betharrandarren ikastetxean aurrera jo –hura ere estreinatu genuen, baina hori ez zen bart izan; gogorza, lekuona, oteiza, aiertza...–, goiko errota alde batean, kinttelanekoak beste aldean, seguesenekoa, kanpeon, uiti hurrena... horiek denak agurtu oraingo harritzarren atzean ezkutatuta badaude ere, eta zelai-luzera zuzen, enparanaraino, posadas akabatu zuten tokia, orioneko ateko bala zuloak han daudela ikusi, basurdea botatzen ikusitako leihoa ere hantxe oraindik, borobilean jira eta zelai-luzera berriz, enparandik bertara laga kotxie eta plaza aldera, hantxe daukat hitzordua. garaiz nabil, hotz ere egiten du, kafesne beroa non edo non hartuko ote dudan nabilela plazatik gora hasi naizen orduko hoska baten bat, eta ez dakit nola hots egin didan ere, ze izen ibili duen, hainbeste daukat hainbeste urtean. txikitino da, txikitako lagun txikitino, eta ze moduz eta hi ondo eta ni?, ni ere txarki, eta orduantxe gu konbertsazioan eta parean tokatu da andrazko bat, zorionak esanez, ez da niri ari, txikitinori ari zaio, ehun urte bete ditu erlojeriak, ehun urte, hiru jenerazio, eta zelebratu ere egin dutela esan dit txikitinok, eta eskuliburu txiki bat jarri dit eskura, oso gauza polita, oso testu ederrak barruan –baina hori gero ikusi dut, etxera ailegatu eta liburua letu dudanean–, eta poltsikoan sartu eta arrabal aldera egin dut, eta hor ez zait fantasmarik azaldu eta plaza aldera hasi naiz berriz, eta han non ikusten dudan haren irribarre ederra, eta ze moduz, eta hi ondo eta ni?, ni ere txarki, eta berriketa, askotan etortzen al haiz?,



|||||||miel a. elustondo|||

|||(...) eta pasatu denean gerraundiko miren dela ikusi dut, eta horixe entrebistatzera etorri nauk!

eta bat ez!, nik, gustura etorriko bai, koinatua eta iloba hor direla beti, maitagarriyek, eta inoiz, behin, hamahiru urtean festetara etorri naizen aldi bakar hartan, manuelek ikusi eta esan zidala, hik zuztarrak hemen dauzkek! builan, bai, baina joan eta harrapazak, eta berak, irribarre ederreko mutilak fruta saltzen lan egiten duela loiolan, eta nola zuen izena mutil honek?, eta ezin akordatu, eta zer nabilen, eta paretik pasatu den bati kasu egin dio, eta pasatu denean gerraundiko miren dela ikusi dut, eta horixe entrebistatzera etorri nauk! esan diot irribarre ederra dibujatzen dakien mutilari, eta gerraundiren atzetik abantatu naiz plazara, juanjoheren fantasmari kasu egin ondoren –egundo ez nuen jakin izan zergatik esaten zioten makillas gure lagunari–, eta irribarre goxoko mutilaren izena burura ezin ekarrita.*



Miel A. Elustondo

MATRIKULAZIOA

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH

2017 - 2018

Pausoz Pauso
etorkizuna eraikitzen



AZPEITIKO IKASTOLA KARMELO ETXEGARAI HLHI

Euskal Herria, 50 - Tfnoa: 943 81 26 97 - www.azpeitikoikastola.hezkuntza.net
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza



**ZAINITZA ZERBITZUA
BI JANGELA**

- Lehen Hezkuntzakoentzat
- Haur Hezkuntzakoentzat (logela eta guzti)

GARRAIOA

- Autobus bakoitza bere zainzailearekin



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA DBH

UROLA IKASTOLA

Perdilllegi, 3 - Tfnoa: 943 15 02 28 - www.urola.org
DBH, Batxilergoak eta Heziketa Zikloak



DBH

BATXILERGOAK

- Zientziak eta teknologia
- Giza eta gizarte zientziak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Instalazio eta altzari hornikuntza
- Arotzeria eta altzarigintza
- Mekanizazioa

- Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio eta finantzak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa



MILAR
LARRAMENDI



Smart Retail
sistema berria



Larra...endi
Sukalde Gunea



Eskerrak azpeitiar eta azkoitiar guztioi. 2017 oparoa izan

AZKOITIA Xabier Munibe, 11 / Julio Urkijo, 16
Tel. 943 85 18 97 www.milarlarramendi.com



Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:00 16:30 - 20:00
Larunbata: 9:30 - 13:00



SEDAZIO KONTZIENTEA

Teknika honen bidez hartz klinikara etortzeak sortzen duen beldurra eta estresa albo batera utziko dituzu

Minik gabe eta lasaitasun osoz

GRUPO
 horzkari
hortz osasun klinika

Iberotarren plaza, 4 behea
Azpeitia
T. 943 81 50 52



Alberdi-eneA

zure etxeraineko zuzia

ERAIKUNTZA BERRIA
54 ETXEBIZITZA
1, 2 ETA 3 LOGELA

3 LOGELA
229.000€ - TIK
HASITA

GARAJE ITXIAK;
BIKOITZAK ETA
BANAKOAK

INFORMAZIOA ETA SALMENTA

683 704 750

JOSE DE ARTETXE, 8 KALEA

www.alberdienea.com